




*Emakumezkoen
partaidetza
kirolean*



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL IRAKUNDIA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

MERCEDES SALCEDO MIGUEL

◦
*Emakumezkoen
partaidetza
kirolean*

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1993

IZENBURUA:	"Emakumezkoen partaidetza kirolean"
EGILEA:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea Manuel Iradier, 36. 01005 VITORIA-GASTEIZ
AUTOREA:	Mercedes Salcedo
DATA:	Apirila 1993 (Lehen argitalpena)
ALE ZENBAKIA:	1.000
DESKRIPTOREAK:	Kirola, aspektu historikoak, aspektu soziologikoak, bereizkeria, datu estatistikoak
IRUDI DISEINUA:	Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
ILUSTRATZAILEA:	M ^o José Gamboa
FOTOKONPOSATZAILEA:	RALI, S.A. Particular de Costa, 12-14. 48010 BILBAO
INPRIMATZAILEA:	Gráficas Santamaría, S.A. Bekolarra, 4. 01010 VITORIA-GASTEIZ
I.S.B.N.:	84-87595-15-4
LEGE GORDAILUA:	VI-345/93

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
1. KIROLAREN SOZIOLOGIA ETA ANTROPOLOGIA	11
1.1 Kirola zer den	11
1.2 Sailkapena	12
1.3 Garapen historikoa	15
1.4 Joko Olinpikoak	17
1.4.1 Emakumeak Olinpiadetan	19
1.5 Kirolaren alderdi psikologiko batzu	20
1.6 Emakumeak kirol munduan	22
1.6.1 Sexuen arteko ezberdintasun fisiologikoak	25
1.6.2 Sexismoa kirolean	26
1.6.3 Gertaerak eta iruzkinak	29
2. KIROLA GURE ARTEAN	31
2.1 Helburuak eta metodologia	31
2.1.1 Helburuak	31
2.1.2 Metodologia	31
2.1.3 Tokian tokiko lanari buruzko iruzkinak	32
2.2 Kirol federatua	33
2.2.1 Kategoriak	37
2.3 Udal kiroldegiak	39
2.3.1 Ikastaroen eskaintza	40
2.3.2 Klubak	42
2.3.3 Erabiltzaileak	42
2.4 Kirola UPV/EHUan	44

3. OINARRIZKO KIROLA EGITEN DUTEN EMAKUMEAK	47
3.1 Datu soziodemografikoak	48
3.1.1 Adina	48
3.1.2 Egoera zibila	49
3.1.3 Ikasketak	49
3.1.4 Lan egoera	50
3.1.5 Lanbidea	51
3.2 Emakumeek praktikatzen dituzten kirolak	51
3.2.1 Maiztasuna	53
3.2.2 Bakarkako edo taldekako kirola	54
3.3 Motibazioa	54
3.3.1 Nork bultzatu zuen kirola egiten hasteko	56
3.4 Osasuna eta kirola	57
3.4.1 Osasun arazoak	57
3.4.2 Elikadura	58
3.5 Itxarobideak	58
3.6 Kirola ikuskari gisa	60
3.7 Emakumeentzako kirolak	62
3.8 Kirolarekin lotutako zenbait gairi buruzko eritziak	64
3.8.1 Kirol arriskutsuak	64
3.8.2 Kirola, agresibitatea deskargatzeko baliabidea	65
3.8.3 Garaipena lortzeko lehia	65
3.8.4 Xakea	66
3.8.5 Azken iruzkinak eta ondorioak	66
BIBLIOGRAFIA	71
ERANSKINA: INKESTA	73

Iharduera fisikoren batean parte hartzea gozamen-iturri da, eta garrantzitsua bizitzaren kalitate hobetzeari begira.

Ikerketa bat baino gehiagok erakutsi du kirolen bat egitea osasunaren mesederako dela. Kirola egiteak emaitza sendagarriak ekar ditzake, gaitzei aurrea hartu eta gorputza bere onera ekartzeko balio dezake, eta egokia izan daiteke bizitza geldo, elikadura desegoki, estresari eta antzekoei aurre egiteko. Ondorio psikologikoak ere hor daude, norberaren buruaren estimazioa areagotzeko, erasokortasuna kontrolatzeko eta arazoei aurre egiteko gaitasun handiagoa eman baitezake.

Hala ere, emakumeek oraindik ere kirol eta aisialdiko ihardueretan ez dute parte hartze handirik eta horren arrazoiak neska-mutikoen txikitatik jasotzen duten gizarteratze-modu ezberdina izan daiteke. Haurren gizarteratzean eragina dutenek, hau da, gurasoek, eskolak, komunikabideek eta gainerakoek, jokamolde eta asmo jakinak barneratzen dizkiete neskei eta mutilei.


Mutilak biziak eta erasokorrak izatea nahi da, eta neskak, berriz, geldoak eta otzanak. Gorputz-heziketa jasotzen hasten direnetik, eta batez ere jokoetan, sexuak bereiztu egiten dira eta jokoak sexuaren arabera egiten dituzte neska eta mutilek, ohizko moduetan oinarrituta. Jarrera bera modu ezberdinean neurtzen da sexua kontuan izanda, eta hala, kirola gizonentzat egokiagoa dela uste da erasokorra eta bizia delako eta lehiakortasuna nahiz indarra eskatzen dituelako. Emakumeak, kirola egitekotan, "emakumeentzako kirolean" ari izaten dira, esate baterako tenisear, soinetan, igeriketan... Dena den, orain arte gizonezkoentzat ziren kirolean gero eta emakume gehiago ageri da.

Kirolaren antolaketan agintzen duten organoetan ere emakume gutxi ageri da eta gizonezkoak dira goi-karguak bete eta zein politika eraman aurrera erabakitzen dutenak.

Bestalde, kirol-ekitaldien berri ematean komunikabideek egindako bereizkeriaren ondorioz, emakumeek burututako kirolaren hedapena mugatu egiten da eta ez zaio jaso ahal izango zukeen bultzadarik ematen.

Gai horri lotuta, EMAKUNDEk, Euskal Autonomi Elkarteke Emakumeentzako Ekintza Positiborako 1991-1994 Planeari, emakumeek kirolean parte hartzera sustatzea du helburuetako bat. Hori horrela, talde eta lehiaketak antolatuko ditu horretan aritu nahi dutenentzat eta etxeko erantzukizunak dituzten emakume helduak ere gorputz-heziketa eta kirola lantzerako bultzatuko ditu, denbora eta diru aldetiko mugak kontuan izanda.

Hori dela eta, EMAKUNDEri interesgarria iruditzen zaio ikerketa hau argitaratzea, gure autonomi elkarteke emakumeek historian zehar kirola dela eta izandako bilakaera eta gaur egun duten egoera, hau da, zenbateraino parte hartzen duten, adina, kirolik gustukoena, dituzten zailtasunak, e.a. ezagutzeko balio baitezake. Hori guztia jakinda, kirol-eskaintza egokia egiteko moduan izango gara eta kirolaren arloan emakume gehiago izaten lagunduko dugu.



Iz. Txaro Arteaga Ansa
EMAKUNDE/ Emakumearen
Euskal Erakundeko Zuzendaria

Kirolaz pentsatzea eta idaztea ez da eginkizun erraza izaten, batik bat hitz honen esan-nahiak mende honen azken hamarkadetan hartu duen hedadura eskergagatik.

José María Cagigalentzat, kirolaren soziologoaren artean estatuan dagoen inportanteenetako bat bera bait da, kirola erraldoi bihurtu da, eta gaur egun “izutzeko moduan hazi da”, alde guztietatik begiratuta neurririk gabe gehitu dira: partaideak, ikusleak, erakundeak, informazio unitateak, negozioa, industria...

Gai honek duen zabaltasunagatik, pertsonak eta dirua milioika mugitzen bait du, azterketa teoriko bat eskatuko luke, gizartean duen eraginaren arabera. Honako ikerketa honen xedea ez da hori, baina nahiko luke, laburrean badarik ere, xehetasun zenbait ematea historian zehar kirolak zein toki izan duen gizaterian argitzearen.

Azaltzen dugun ikerketa enpiriko honen helburua da gure inguramenduko emakumeak zer parte hartzen duen kirol munduan aztertzea eta, partaidetza hori dela medio, gure herrialdearen modernotasuna frogatzea une historiko honetan.

Neure esker ona azaldu nahi diet EMAKUNDEri Emakumearen Euskal Erakundeari ikerketa hau finantzatzeko eman duen diru laguntzagatik, hautatutako kiroldegien zuzendariei, behar nituen datuak hartzen uzteagatik, Begoña Castellanos, Amaya Herrero eta Amaya Redondori bere lankidetzak aktiboarengatik, eta elkarriketetan parte hartu zuten emakume anonimo guztiei, erakutsi zuten borondateari esker lortu direlako hemen eskaintzen ditugun emaitzak.

Mercedes Salcedo Miguel
Autorea

1.

Kirolaren soziologia eta antropologia

1.1

KIROLA ZER DEN

Jokoa eta kirola mendez mende batera ibili dira, eta oso zaila da bataren eta bestearen edukia bereiztea. Antzinetatik jokoa hartu izan da josteta ekitaldi bat bezala, denbora pasatzeko modu bat, baina jakineko arau batzuek zuzendua.

Jokoak hiru multzo handietan banatu izan dira:

- Halako kondizio fisiko batzu lantzerantz bideratutakoak, hala nola, indarra, zalutasuna, bizkortasuna eta zehaztasuna.
- Ahalmen intelektualetan, logika erabiltzean, oinarritzen direnak.
- Zoriaren mendean daudenak.

Hasieran gizonarentzat ezinbesteko eginbeharrak zirenak, esaterako ehiza edo abereen gainean ibiltzea, denborarekin kirol-joko bihurtu ziren; gizonen arteko lehia, konkistarako edo bizi ahal izateko, borroka-joko bilakatu zen.

Greziarrek arautu zuten lehendabizi joko atletikoak. Joko haiek ariketa fisikoak ziren eta lasterketan, jauzian eta jaurtiketetan ahalegin fisikoaren errendimendua hobetzea bilatzen zuten. Blanchard eta Cheska antropologoek honela definitzen dute kirola: "Nekean eta lehian oinarritzen den ariketa fisikoa da, batzuetan erasokorra ere bai, definizio eta araudi hertsigarriari lotzen zaiena. Kultur osagai bat da, jarraibide erritualak barne, eta neurri aldakorrean jokoa, lana eta aisia da aldi berean. Atletikoa izan daiteke edo ez, praktikatzeko erabili behar den ahalegin fisikoa handiagoa ala txikiagoa den heinean".

Definizio hau ez dago hain urrun betidanik jokatzen hartu den horretatik. Nabardura batek bereizten ditu, kirola instituzionalizatua izan ohi dela eta jokoa berriz ez. Beraz, beste ikuspuntu batetik kirola izango litzateke josteta ekintza bat, non erabiltzen bait dira giza kalitate batzu, esate baterako indarra, zehaztasuna, adimena, denak arau zehatz batzuei atxekiz, kirol erakunde nazional eta nazioartekoaren kontrolpean eta hauek araututa, non kon-

petizioa herronka bat bait da gizabanakoen edo taldeen artean, helburutzat gizabanakoaren edo taldearen gainditzea duelarik.

Ez da erraza 'kirola' hitzaren esannahia bateratzea, egile batzuentzat joko mota berezi bat da, batez ere jolasa da, eta lehiak ez du hor tokirik edo bigarren mailan gelditzen da; egile hauen eritziz kirola ez da iadanik jolasa, eskatzen duen neke eta entrenamenduagatik jokoaren mugak gainditzen direnean.

Dena den, beste egile batzuentzat kirolean jokia baztertu egin behar da, zeren eta kirolari on batek prestakuntza fisiko zehatza behar du, disziplina eta gainditzeko erantzukizun pertsonal handia, eta hori dena egitura eta antolamendu formal garrantzizko baten bitartez arautua. Ikuspegi horretatik, kirolak jolaserako eta zerbait dibertigarri izatetik lan gogorra izatera pasatzen dira eta izaera instituzionala edukitzera. Horixe da, hain zuzen ere, kirol profesionalaren edo elitekoaren kasua.

Definizio ezberdin hauen aurrean baieztatu dezakegu kirola ezin dela kontzeptu bakar batez mugatu, eta horren ordez definizio ugari onartu beharko direla, kasu bakoitzean izan daitekeen erizpideen arabera.

1.2

KIROL SAILKAPENA

Hitzaren definizioak dakartzan arazoez gain kirolen sailkapenari dagozkionak daude, bada, kirola modu askotan sailka daiteke zein ikuspegitatik begiratzen den kontutan hartuz. Lehenbiziko bereizpena kirolaren funtsezko osagaia zehaztea da, helburuari dagokionean, horrela oinarri hauek dituzte ariketa hauek:

- Ura (igeriketa, surfa, arrantza, eskia, estropadak, tranpolina).
- Airean (bela, hegazkin akrobatikoa, windsurfa).
- Lasterketak (iraupenekoak, abiadakoak, erreleboak).
- Konbatea (borroka, boxeoa, karatea, esgrima).
- Zaldiketa (lasterketak, polo, jauziak).
- Gimnasia (anilak, barrak, astoa).
- Halterofilia (pesak, muskulazioa).
- Izotza/elurra (eskia, patinaia, trineoa).
- Pilota (oina, eskua, xarea, makila).

- Pista (jauzia, jaurtiketa, pertika, ehiza).
- Prezisioa (tiroa, uztaila, geziak, lantza, bola jokoa).
- Gorpila (automobila, txirrindua, motozikleta).

Egin daiteke ere beste sailkapen bat egituratze maila aintzat hartuz. Praktikatzeko modu batek guztiz egituratutako sistema bat eskatzen du: lehiaketa da funtsezko helburuak lortzeko modua, hots, errekorrak eta markak haustea, xede horretarako antolatutako txapelketa nahiz lehiaketetan. Helburu horrekin egiten den ariketa fisikoa arauteria hertsia bati lotzen zaio, klubak eta federazioek zehazten dutena. Horixe da topera instituzionalizatutako kirola.

Instituzionalizazio horren nazioarteko mailarik nagusia kirol olinpikoen esku dago, eliteko kirolariek praktikatzen dute lau urtetik lau urtera. Gai hau beherago landuko dugu, ondoko orrialdeetan.

Maila nazionalan, kirol federazioek dute kirol disziplina bakoitzaren kontrol instituzionalaren ardura. Kirol federazio bakoitzak arautzen du berari dagokion kirola, arauak eta jarraibideak ezarriz, eta kirol egitura osoa kontrolatzen du: markak, lehiaketak, norgehiagokak, e.a.

Bada, alabaina, kirola egiteko beste modu bat egituraketa horren beharrik gabe, eta horren helburua ez da derrigorrezkotzat jotzen den lehia hori ez eta markak hausteko irrika ere. Oinarrizko kirolaz ari gara, batez ere jolas ekitaldi gisa hartzen dena, gorputza landu eta mantentzekoa, non giza harremanek eta lagun giroak lehentasuna bait dute, indibiduen eta taldeen arteko lehia izaten diren emaitzen gainetik.

Kirol profesionalak berebiziko tokia dauka, batez ere ikuskizunen aldetik. Kirola ikuspegi profesionaletik hartzen baldin bada, ez da jolasarako zerbait bezala hartzen, lan bat bezala baizik. Ikuspegia erabat aldatzen da. Kirola egiteko modu hau gizarte industrial modernoaren ondarea da, espezializazioari eta kontsumoari ematen zaiolako garrantzia, eta horrela masa-kirol bihurtu da, ikuskizunik handiena, pertsonak eta dirua milioika mugitzen dituen.

Soziologo batzuentzat masa-kirola taldeko tribalismoaren aztarna bat litzateke egungo gizarte industrialean. Kirola ikuskizun gisa, Europan futbola adibidez, emoziozko eragina dauka jarraitzaileen artean, deskarga psikologikoa, psikologo sozialek ongi aztertu dutena hori eta geurok ere geroago arakatuko duguna.

Orain arte azaldu ditugun sailkapenez gainera, kirola beste era batzuetan ere sailka daiteke, beste ikuspuntuetatik begiratuta, adibidez:

Bakarkakoa edo taldekakoa, non lehentasuna bait du bakarkako jokoak edo kolektiboak. Alde horretatik, gizabanako bakoitzak, norberaren izakera eta zirkunstantzietatik abiatuz, bere kirol mota hautatuko du eta praktikatzeko modua ere bai, lagunarterako joerari segiz edo garapen indibidual soila lortzearen.

Eskolako kirola deitzen duguna, oinarritzko irakaskuntzan eta ertainetan mende honetan sartu diren disziplinen artean dagoena, garrantzi handikoa da haurrak eta gazteak gorputz ariketan eta kirol jokoetan heitzeko orduan. Alde batetik talde giroa suspertzen du eta bestetik gorputz ariketaren bitartez etorkizunean izan dezaketen zaletasuna ernarazten du.

Ez da ahamtzi behar mundu mailan *ekialdeko kirolari* aitortzen zaion garrantzia eta duen abegi ona, ez eta bere baitan daukan filosofia ere. Ekialdeko eta mendebaldeko kirolak ideologiaren ezberdintasunagatik berezita egon dira, baina gaur egun hauek deuseztu egin dira, eta bien edukiak praktika unibertsal batean bildu dira.

Hala eta guztiz ere, historiari eta filosofiari bagagozkio, alde handiak izan dira ekialde eta mendebaldearen artean, bizitzaren aurrean ez ezik baita kirolaren aurrean ere. Mendebaldean, antzinateko Grezietatik hasita, gorputza eta honen garapen osoa goraiatu da, kirol gailentasuna bezainbat, baina axola gutxi izan du ariketa fisikoaren bidez pertsona bere buruarekin bat egiteak. Haatik, barne topaketa hori gogoz landu dute ekialdeetarak, japoniarrek arte martzialetan, judo eta kendo kasu, 'zen' budismoan inspiratuta eta txinatarrek 'tao'an. Filosofia horiek izate fisikoa eta absolutua bat egin nahi dute.

Maiz aski gertatzen da mendebaldarrak arte martzial horiek praktikatzeko hasten direnean teknikak baizik ez ikastea, eta barnean daukaten filosofia, ekialdeko pentsamendetik ikusiz zentzu berezi bat ematen diotena, alde batera uztea.

Beste alde batetik eta partaidearen ikuspegitik, *kirol munduarekin zerikusia dutela kontsideratzen dira* klub batean edo kirol elkarte batean izena ematen duten guztiak, noizik behin kirol piska bat egiten dutenak, edo ikusle gisa kirol ikuskizun edo lehiaketetara joaten direnak, edo emaitzez interesa agertzen dutenak, apostuak eginez nahiz komunikabideetan edo informatzaileen bitartez jarraikiz. Populazioaren portzentaia handia dago modu batera edo bestera honekin lotuta.

Halako hedadura duen fenomeno baten ondorio sozialak ez dira batere txikiak. Nazio guztietako gobernuak kirolaren garrantziaz jabetuz joan dira gero eta gehiago, maila eta zirkunstantzia guztietan. Horrela, dena planifikatzen da, oinarritzko kirola praktikatzeko kiroldegia eraikitzeak hasi eta kirol ikuskizunak gozatzeko estadio handietara, kirol arloko

apostuak arautzetik, kirola egiteko federazioak eta arauteriak homologatzera. Era berean, oinarrizko eta eskolako kirola praktikatzeko kanpainak bultzatzen dira, populazioarentzat osasungarri delako.

Ez dugu aipatzeke utziko gertakizun honek sortu duen industria. Kirolerako jatzkiak, oinetakoak, aparatuak, e.a., azken aldian izugarrizko hazkuntza izan dute. Kirolaren ingurumariak bere baitan sortarazi du kirolgai berezi eta oso espezializatuen kontsumoa, eta enpresariak produktu horiek sustatu, bideratu eta saltzeko trebezia izan dute. Une honetan, kirolaren industriak, maila orotan, milaka milioi mugitzen ditu.

1.3

GARAPEN HISTORIKOA

Ukaezina da gizateriaren historia, historiaurretik hasita gure garaira arte jokoari eta kirolari lotuta egon dela. Horixe erakusten digute aurkitu diren aztarna arkeologikoek, are eta paleolitikotik hasita. Antropologoek diotenez, jolas ekitaldi horiek kultura guztietan izan dira eta baieztatu daiteke giza izakerak berekin duela ahalmen hori, nahiz eta zenbait kasutan esannahi erlijiosoa ere baduten, jolas edo kirolarena baino gehiago. Nonnahi eta kultura orotan suertatzen dira, eta kontinente guztietan, giza zibilizazioaren sortze beretik, nahiz eta zaharrak izan eta geografikoki bata bestearengandik urrun egon; beraz, kirola, artea den bezala, etnologia, etnohistoria eta arkeologia arloko informazio iturria da.

Tamalez, paleolitikoko populazioen gainean informazio eskasa dago, baina zenbait gauza idoro dituzte joko tresnatzat hartu izan direnak.

Hiriko zibilizazioa sortu aitzineko aldiak kirol tresna askorik eskaintzen ez digun arren, jakinekoa da hirien eraikuntza arras inportantea dela arkeologiako erregistroan funtsezko informazioa eskaintzen digulako. Horren arabera ziurta daiteke bazirela kirol erakunde konplexuak garai hartan.

Duela milaka urtetako gai, pintura eta grabatuek adierazten digute honako kirol hauek beren praktikatzeko zirela, borroka, lasterketak, igeriketa eta era askotako pilota jokoak, hain kultura ezberdinetan nola mesopotamiarra, egipziarra, indiarra edo txinarra.

Kirolaren historigileak diren Palmer eta Hóell-ek baieztatzen dutenez kirol eta jokoen frogarik zaharrenak zibilizazio sumeriarreko dinastia aldi goiztarretik ezagutzen ditugu, K.a.ko 3.000tik 1.500 urtera bitarte. Ordutik aitzina adibide franko dago kultura etrusko, kretiar,

greziar eta erromatarrenean kirola hirietako bizitzan errotua zegoela frogatzen dutenak, garai hartako aztarna, pintura eta suilen bitartez ikus dezakegunez.

Historiaurreko kirolaren adibide dokumentatu hoberenak ia 3.500 urte ditu, olmekatarren pilota jokia da, Mexikoko itsas golkoan. Taldeka jokatzen zen, arau zehatzak zituen eta pilota paretari itsatsita egoten zen txingeta batetik pasatzea zen jokia. Pilota jokoa, bere al-daki guztiekin toki nabaria izan du beti hainbat kulturatan; egipziarrak, greziarrak eta maiak, besteak beste, horretan aritzen ziren.

Greziarrek zehatz-mehatz arautu zituzten beren joko atletikoak eta eredu klasikoa sortu zuten kirol arloan. Jokoa hiri ezberdinetan egiten ziren eta trebetasun fisikoaren eta hezkuntzaren aurrerakuntza erakusteko parada izan ohi ziren; kultura greziarrak berebiziko garrantzia ematen zion gorputzaren edertasunari eta horren proportzioen perfektioari, eta kirola zen, izan ere, garapen harmoniko hori erdiesteko bidea.

Olinpiako hiriak lehiaketa haietan eragin handia izan zuen, hori dela eta gaur egun izen hori eman zaio: Joko Olinpikoak.

Erromatarrek, greziarrek bezala, gorputza gurtzeko modalitate atletiko heleniarrak bereganatu zituzten, beste ikuskizunak tartekatzen zituztelarik, zirko erakoak, abereak eta guzti. Ekitaldi horiek praktikatzean erromatarren zirkoak eta anfiteatroak greziarren estadioa ordezkatu zuten.

Erdi Aroan kirol joko klasikoek ez zuten segidarik izan. Bada informaziorik nobleziaren kirol aktibitateari buruz, hala nola, oinezkoen eta zaldizkoen torneoak, ehiza, eta ezpataz, dagaz eta mazuaz egiten ziren konbateak. Batez ere horiexek ziren jauntxoek jostatze eta heziketa fisikoak. Herriak beste joko batzuek zituen, pilota joko ezberdinak, boloak eta pentanka.

Dena den, gaurreguneko kirola egiazki XIX. mendean sortu zen Europan, T. Arnold inglesari eta P. de Coubertin frantsesari esker. Arnold-ek hankaz gora jarri zuen Britainia Handiko kirol heziketa, eskolako gazteriaren ohiturak aldatu zituen araututako kirol jokoa suspertuz. Kirol arrazionalaren garaia heldu zen, antolatua eta kodifikatua. Arnold-ek bultzatutako mugimendu hura nazio osoan hedatu zen eta hezkuntza integralaren oinarririk sendoenetako bat bezala hartu zuten. Urte gutxi batzuren buruan kirolari buruzko eritzi berri hura nazio anglosaxoi orotara zabalduz joan zen eta orobat Europako gainerako lurraldeetara eta EEBBetara.

Coubertin bestalde, Frantzian kirolak eskolako irakaskuntzan sar zitezen ahalegindu zen eta kirol arloan nazioarteko lehenbiziko harremanak sortu zituen. Joko Olinpikoak berpiztu asmoz, 1888an hamalau naziotako ordezkariak bildu zituen Sorbonan.

Joan den mendean hasitako kirol sustapenatik aurrera, kirola eskola garaian sartzetik hasi eta lehia olinpikoak berpiztera bitarte -zeinek ikusmin handia sortu zuten adineko eta gazteengan-, kirola praktikatzeari eta batik bat eskaintzen duen espektakuluari esker neurririk gabeko zerbañ bihurtu da mundu osoan.

Lagin gisa joan den hamarkadako datu hauek ematen ditugu, José María Cagigal-ek aipatutakoak, aski adierazgarriak:

- 25 milioi kirolari federatu Alemanian eta 50 milioi Sobiet Batasunean.
- 14.000 partaide New Yorkeko Marathoian.
- Mila milioi pertsona baino gehiago Futboleko Munduko Txapelketa eta Joko Olinpikoak ikusteko zai.
- Ezin konta ahal kirolari federatugabeko kirola beren gustoz eta garapen fisikoa lortzeagatik egiten dutenak.
- Kiroleko informazioaren bolumena nazioko eta nazioarteko politikaren albisteek bakarrik gaitzen dute. Kirolak ohorezko tokian daude prentsan eta telebistako programazioetan.
- Joko Olinpikoetan 4.000 kazetari kreditatu baino gehiagok hartzen dute parte eta informazioko hamar milaka profesionari kirolaz baizik ez da ardurutzen.
- Maila ekonomikoan, kirol konpetizioetan aipatzen diren zifrak milaka milioi pezetakoak dira.

Ikusitakoa ikusita segurtu daiteke kirolak arlo soziologikoan garrantzi handia duela munduan zehar, eta gizakiaren bizitzako hainbat alderditan eragina duela.

1.4

JOKO OLINPIKOAK

Greziarrek antolatutako aurreneko jokoak K.a. 776koak izan ziren eta lau urtez behin egiten ziren. Estadiora joaten ziren atleta greziarrak hilabetetan entrenatuak izaten ziren proba ezberdinetan. Horien artean atleten eta orgen lasterketak izan ohi ziren, jauziak, txabalina eta disko jaurtiketak, borroka, eta proba mistoak hala nola pentathloia. Olinpia izan zen tradizio gehien izan zuen hiria joko hauek antolatzean eta festetan Greziako interesgune bi-

lakatzen zen: artistak, poetak eta hizlariak biltzen ziren hantxe beren lanak mundu guztiari erakustearren. Era horretara, olinpiadak kultura greziarren adierazpen zabalena izaten ziren.

Pierre de Coubertin-ek 1893ean nazioarteko kongresu baterako deia luzatu zuen, kirol erakundeena, eta hortixe sortu zen Nazioarteko Batzorde Olinpikoa (N.B.O.). Haren eginahaiaren ondorioz, Atenasen egin ziren 1896an lehenbiziko joko olinpiko modernoak, Periklesen garaiko estilora eraikitako estadio batean, antzinateko jokoen espirituari eutsi eta haien oinardeko izateko asmoz. Handik aurrera jokoak lau urtez behin ospatzen dira Grezia zaharrean bezala, eta helburua da kirol amateurraren eta herrien arteko anaiartekotasunaren espiritua mantentzea kirolaren bidez.

Joko hauek lehenbiziko aldiz egin zirenez geroztik, 1896an, lau urtetik lau urtera behin eta berriz egin dira munduko hiri ezberdinetan, tartea handiagoa izan zelarik bi gerra mundialetan. Hurrengo jokoak 1996an egingo dira Atlantan.

Egungo olinpiadetan antzinakoetan baino askozaz ere disziplina gehiago dago. Hogeitasei kirol mota daude, arlo ezberdinetakoak. Batzu uretakoak dira: igeriketa, palanka eta tranpolinoko jauziak, waterpolo, arrauna, bela eta kanotaia. Beste batzu talde jokoak dira: saskibaloia, belar gaineko hockeya, besagainbaloia, eskubaloia eta futbola. Borroka edo defentsaren ordezkariak dira: judoa, borroka, boxeoa eta esgrima. Abiadura eta lehia proba garbitzat jotzen dira atletismoa, bere modalitate anitzarekin, eta txirrindularitza. Halterofilia eta gimnasia oinarritzko kiroltzat hartzen dira. Trebetasuna pistola tiroketan eta uztai tiroketan frogatzen da. Pentathlonean kirolari osoena da nagusi, bost disziplina ezberdin praktikatuz behar bait du, eta zaldiketa da abereak erabiltzen dituen kirol olinpiko bakarra.

Bestalde, Neguko Joko Olinpikoak ere izaten dira, 1924tik aurrera ospatzen direnak, lau urtetik behin hauek ere, izotz eta elurreko kiroletarako, eskia, izotz gaineko hockeya eta patinaketa.

Kirolaren bitartez burutzen den nazioarteko bilkura honek bere abantailak eta eragozpenak ditu. Lehenbizikoen artean aipatu beharko lirateke herrien arteko adiskidetasuna eta haien arteko lehia garbia, bai eta aurreko urteetan lortutako markak eta errekorrak gaingitu eta berriro haustea gizadiari suposatzen dion herronka ere.

Bigarrenari dagokionez, adierazi behar da joko hauek tresna ekonomiko eta politiko esker-gaihurtu direla mundu osoan, eta amateurismoa, hain goraipatua duela zenbait urte, gaur egun zalantzan dagoela atletek lortzen dituzten emaitzak eta markak ikusita, eta horretaz

gain ohorearen irrikak eta munduko errekorrak hautsi nahiak kirolariak debekatutako sustantziak hartzera bultzatu dituzte.

Azkenik esan behar da kirola uniformatzera eta homologatzera daraman nazioartekotasunak berekin dakarrela arrisku bat, herrialde edo kultura bakoitzaren herri kirolak baztertuta eta ahantzirik gelditzearena, alegia, komunikabideek etengabe sartzen ari diren erraldoi horren eragin neurrigabearen poderioz.

Herri kirolari eutsi behar zaio herri bakoitzeko kultur tradizioaren erakuskari delako, bertakoen ezaugarri bat delako, baita antropologi aztarna aberatsa ere, belaunaldiz belaunaldi transmititzen dena, eta gainera bertako artearen eta literaturaren inspirazio gai ezezik herri-arrantzako ikuskizuna eta aldi berean kohesiorako baliabidea ere izan ohi da.

1.4.1

EMAKUMEAK OLINPIADETAN

Emakumeari ukatu egin zitzaion antzinateko Joko Olinpikoetan parte hartzea, eta orobat aro berriko lehenbizikoetan, 1896koetan. Hurrengo deialdietan erabat sinbolikoa izan zen emakumeen partaidetza, eta horrela Batzorde Olinpikoaren eritziei jarraikiz, emakumeentzat egokitzen jotzen ziren probetan baizik ez zieten uzten parte hartzen, zeren eta "indar handia behar izaten duten ariketak, hain zuzen ere gizonek praktikatzen dituztenak, kaltegarri gerta bait dakizkie".

Estokolmon 1912an egin zen Olinpiadan, emakumeak onartua izatea lortu zuen igeriketa probetan. Lehenengo gerra mundialaren ondotik egin ziren aurreneko Jokoetan, 1920an, emakumeek baztertuta segitzen zuten lehiaketa olinpikoetan. Hori dela eta, emakume kirolarien elkarte batek sustaturik eta Nazioarteko Batzorde Olinpikoak zerabilen bazterkeriari erantzun nahian, 1921ean Emakumezkoen Olinpiada eratu zen Montecarlon, zeinetan parte hartu bait zuten Britainia Handiak, Estatu Batuak, Frantziak eta Suizak, kirol modalitate ezberdinetan. Olinpiada hau ez zuen NBOak ontzat hartu, ez eta 1922 eta 1923an emakumeek antolatu zituztenak ere. Hainbeste saiatu ziren non 1928ko Anberesko Olinpiadatik aurrera emakumeen presentzia guztiz zabaldu bait zen.

Halarik ere, emakumeak atletismoko probetan parte hartzen hasi zirenean eztabaida ugari sortu ziren. Courbertin baroiak berak ere zera adierazi zuen ofizialki: "Ni, neu, jokoetarako emakumeak hautatzearen aurka nago. Erabaki hori nere borondatearen kontra hartu da".

Olinpiadak jokatzeko ziren arabera emakume partaideen kopurua gehitzen ari zen. Berlinen 1936an egindakoan 20 naziotako emakumezkoen ordezkariak izan ziren, haatik erabaki bat hartu zen emakumeak proba batzuetatik baztertzeko, hain zuzen ere iraupen luze eta ertaineko lasterketatik, altuera jauzietatik eta jauzi hirukoitzetatik, "proba horiek desegokiak direlako emakumeentzat".

1948an, Londres zelarik zuzi olinpikoa jaso zuen hiria emakumezkoentzako proben egutegia zabaldu egin zen, harrez gero erresistentziako kirolaren debekua kendu egin zen. Aldi hartan 207 emakume hartu zuten parte, 27 nazio ezberdinetakoak.

Olinpiada hartatik aitzina emakumezkoen partaidetza gero eta gorago joan da, nahiz eta behin ere ez den berdintasun osoa eskuratu. Zenbait probetan gizonezkoak baizik ez dute parte hartzen, gimnasia deportibo mota batzuetan, rugbyan, futboleko eta water poloan, besteak beste. Urteak igaro ahala nabari da emakume kirolariaren adina jaitsi egin dela. 1952an, Helsinkin, emakumezko partaideen batezbesteko adina 27 urtekoa zen, 1972an Municheko Olinpiadan berriz 17 urtekoa izan zen.

Adinaren jaitsiera honetaz gainera, emakumeek lortzen dituzten errekorrak hobetuz doaz etengabe. Emakumearen errendimendu fisikoa hain gora joan da, ezen emakumezkoen egungo errekor batzuek hobeak baitira mendearen hasierako gizonezkoenak baino. Pentsatzen da emakumezkoen errendimendu horren gailurra ez dagoela aurrikusterik, entrenamendua gero eta biziago bihurtzen ari delako eta dedikazioa teknikoagoa eta trinkoagoa delako, eta horrek ezinbestez etengabeko hobekuntza dakar. Beraz, frogatua dago emakumea gizona bezain gai dela era guztietako kirolerako, dedikazioa eta entrenamendu egozia besterik ez bait da behar.

1.5

KIROLAREN ALDERDI PSIKOLOGIKO BATZU

Kirol psikologiako adituak bat datoz kirola jostetarekin lotzean, horren alderdirik behinena jokoa izatea bait da, profesionala salbu, honen kasuan ordaindutako lana delako. Kirolak ematen duen poztasuna batez ere praktikatzetik dator, emaitzetatik baino gehiago.

Kirola egitetik datorren atsegina hainbat mailatakoa izan ohi da. Lehenengo mailan egongo lirateke kirola denbora pasa bezala praktikatzeko dutenak, ariketak burutzerakoan izaten

den kalitateari gehiegi erreparatu gabe. Lagunarteko harremana da, taldeka praktika ahal izanez gero, xederik nagusiena.

Bigarren mailan leudeke gorputza behartzea atsegin dutenak. Horientzat kirola herronka bat da beren errendimendu fisikoarentzat. Eginahalaren emaitzari balio handia ematen zaio, bakarkakoari nola taldekakoari, taldean praktikatzen bada; emaitza onak lortzeko teknikak garrantzia hartzen ari dira.

Kirol teknikak goi mailako konpetizioko kirolean daukate berebiziko garrantzia. Maila horretan esfortzu fisikoa hagitz handia da eta unatzerainokoa izatera iritsi daiteke. Kanpotik ikusita, kirol diziplinak sortarazten duen neke eskergak autozigorra irudi lezake. Baina esperientziaren atsegina ez da desagertzen. Psikologoek hortik ateratzen duten ondorioa da gizakiak bere ahalmena probatzeko eta esfortzuan azken mugaraino iristeko beharra duela. Gainera, eta dirudienez esfortzu fisikoaren erpinera iristeak atsegin bizi-bizia sortarazten du, ia errekor bat lortzearena bezainbestekoa.

Kirola egitera bultzatzen duten arrazoietakoa eskalan edozein dela ere horien maila, denek onartzen dute pertsona orok ariketa fisikoa egiteko beharra duela, kirol gisa egituratuta ez badago ere, bizirik dagoela eta energia soberan duela adierazteko modu biologiko bat bezala. Era askotakoak dira kirola egitera bultzatzen duten zergatiak. Hona hemen arruntenak:

- Jolasa eta norberaren gorputz adierazpena.
- Norberaren energia fisikoaren garapena, ahalmen potentzialaren frogak gisa.
- Aitorpena, onarpena eta ohorea bilatzea.
- Trofeoa edo saria lortzea.
- Ohorezko klub edo talde baten partaide izatearen urguilua.
- Gutxiagotasunezko sentimenduak gainditzea, baldin eta kirolean arrakastarik izaten bada.
- Norberaren agresibitatea deskargatzea.
- Arrisku eta zirrarenenganako zaletasuna, kirol arriskutsu batzu praktikatzean.
- Eguneroko lanaren eta arazoaren asperdurari itzuri egitea.
- Osasuntsu segitzea.
- Etekin ekonomiko eta sozialak erdiestea (arrazoi honek kirolari profesionalen kasuan bakarrik balio du).

Taldeka egiten diren kirolak onuragarri dira lagunarteko giroa sortzeko eta taldearen kohe-siorako, eta gainera pertsonen arteko harremanetan lokarri sendoak sortzen dituzte. Era be-

rean, norberaren nortasuna indartzen du talde bateko kide dela jakiteak. Sentimendu hori ez da kirolen bat praktikatzen dutenen artean soilik gertatzen, baita ekipo baten jarraitzaileen edo klub bateko bazkideen artean ere.

Alde horretatik garrantzi handia izaten dute kirol ekipo edo erakunde baten inguruan dau den sinbolo guztiek: horren ezaugarri diren izena, koloreak, bandera, anagrama, e.a. Horien bitartez bideratzen dira sentimenduak, jarrerak eta jokabideak. Hauek futbol ekipo zenbaiten jarraitzaile talde erradikalen ekintzak direla eta, azken urteotan soziologoek eta psikologoek aztertu egin dituzte. Talde horietan eraso eta basakeria errotuz joan dira eta kirol ikurren aitzakiaz estadioak eta hiriak suntsitzen dituzte eta pertsonak erasotzen.

Hala ere, kirola hartu izan da nork bere agresibitatea deskargatzeko berezko bide bat bezala. Zentzu batean eta batez ere kirol batzuetan, hura praktikatzea kontsideratu da giza-kiaren sen agresiboak era egituratuan askatzeko bide bezala: indarkeria instituzionalizatua. Atal hau amaitzeko latinoen esaldi ospetsu hura “Mens sana in corpore sano” erabil genezake herri erromatarraren jakituria laburbiltzeko, zeinek kirola aholkatzen bait zuen bizitzaren eta osasunaren atal bat gisa, ez fisikoa soilik baita psikikoa ere. Gaur egun defenditzen da, halaber, kirola eta ariketa fisikoa komenigarri direla berez, bizitza baldintza hoberenetan mantentzeko bide egokiak direlako.

Kirola jostetarako zerbait bezala hartzearen alde gaude, halako bizitz-bilatze batean ariketa fisikoaren bitartez osotasunean eta pozez beterik sentitzeko, P. de Coubertin-en esaldi batean biltzen da; “odolaren hordialdi sano hori, bizitzeko alaitasuna deitu zaiona, ariketa fisikoan ez bada, hain bizi eta gozo inon ere agertzen ez dena”.

1.6

EMAKUMEAK KIROL MUNDUAN

Betidanik ‘joko’ hitza portaera edo jarrera guztiz maskulinoarekin lotu izan da, zeinek gizonak sozialki bete duen eginkizunarekin zerikusirik bait du. Indar fisikoa, trebezia eta lehia, gizonak etxetik kanpoko lanetan erabili eta erakutsi dituzten ahalmenak izan dira. Emakumea, aldiz, emazte eta ama gisa etxeko lanez arduratu behar izan duenez gero, gizadiaren historia osoan zehar publikotasunaren ikusle besterik ez izatera behartua izan da.

Emakumeek, mende honen hasiera arte, kirol jokoaren historian izan duten eginkizuna atle-
tei laguntza eskaintzea, animatzaile izatea izan dela baieztatu genezake. Kirolezko ikuskari
publikoetan ez du parterik hartu ez eta ezaugarri horiek dituzten lehiaketetan ere emakumea
zelako, bere izakera fisikoengatik emakumea ez baitzen eginkizun horietarako egokitzat jo-
tzen. Gehienez ere dantzarekin edo antzerkiarekin lotzen diren emankizun publikoetan
agertzen zen; emakumeak kirol ekintzaren batean jolasten edo jokatzen bazuen, modu pri-
batuan izaten zen, inork ez ikusteko moduan.

Historian barna era laburrean miazten badugu eta aro ezberdinetan utzi dizkiguten aztar-
nak ikertzen baditugu, konturatuko gara kirol jitean agertzen diren lehenbiziko emakumeak
egipziarren garaikoak direla. Hain zuzen ere, Ostrakon da, dantzari akrobataren pintura,
non emakumea erabat bihurrikatua agertzen den. Irudi hau guztiz nabaritzen da aro horre-
tako hormirudietako emakumeen artean; besteetan emakume dantzariak jarrera hieratikoa-
goan daude edo musika tresnaren bat jotzen azaltzen dira.

Aro heleniarrari dagokionez, K.a.III. mendea, terrakotazko pieza bat kontserbatzen da, ber-
tan emakume batzu ikusten direlarik kurkuluxetan jolasten. Aski adierazgarria da greziar kul-
turak, gorputzaren garapen harmonikoa maitatzen eta edertasunaren eredu bere atleten
bidez zehazten zuenak, emakumeak kirola egiten publikoki ez erakustea, Discobolo ospe-
tsuaren arabera, kurkuluxak bezalako joku batean baizik. Dena den, dokumentatua dago
Espartan emakume gazteak fisikoki prestatzen zituztela ezkondu baino lehen, ume sanoak
eta indartsuak izango zituztela ziurtatzeko. Kasu honetan, emakumeei kirola egin erazten
zieten, ez noski, kirolak ematen duen atseginagatik, baizik eta fisikoki ongi hornitutako hau-
rrak eduki zitzaten.

Erromatarrek agerian utzi dute emakume batzuk pilotan, disko jaurtiketan, lasterketetan eta
mazoak erabiltzen aritzen zirela. Joko hauek ikusgai daude Piazza Armerinako mosaiko ba-
tzuetan, Sizilian, eta han neska gazte bat ereinotzez eginiko koroa batez apaindua dago, lehiaketaren bat irabazi zuela adieraziz. Emakume kirolarien anekdota hau ezik, erromatar
gizartean emakumeen presentzia kirolean normaltzat jo zitekeela adieraz zezakeen beste
frogarik ez dago.

Erdi Aroak, armazko torneoak hain usu egiten zireneko garaia, oso esannahi berezia du
emakumearentzat: subjektu pasiboa izatearena era horretako lehiaketetan. Bi aldetatik. Alde
batetik, eta beste garaietan bezalaxe, bere parte hartzea ez zen denbora haietan hain maiz
antolatzen ziren arma torneoetan ikusle soila izatea baizik.

Bestaldetik, eta emakumearentzat sekulako garrantzia izango zuen gauza, lehiaketaren irabazlearen sari bihurtu zen. Armaz egindako konbate baten saria neska bera izaten zen, beraz, neskaren etorkizuna borrokaren emaitzaren menean egoten zen. Lehiakideak bere bizitza arriskatzen du dama lortzearren, irabazten badu bere ausardia eta trebeziaren saritzat neska lortuko du, baina ahaleaginean hiltzen bada, saria irabazlearentzat izango da; esan daiteke, beraz, dontzeila jabez jabe doala segundu batzuren barnean, bere zoria hautatu ezinik.

Erdi Aroko literatura guztiak kontatzen digu heriotzaren eta ezkontzaren arteko erlazioa, arma lehiaketaren bidez eta zaldunen arteko ohore kode hertsiaeren arabera. Emakumeak ez du beste eginkizunik bere zoriaren ikusle soil izatearena baizik: zein zaldunek irabazi duen ikusi eta haren sari izatera makurtu.

Ondoko mendeetako informazio zehatzik ez dago, kirol arloari dagokionean, baina eza-gutzen da, ordea, XIX. mendeko Ingalaterran kanpoko jokoek berriro ere indarra hartu zutela. Burgesiaren garapenak, aristokrazia erruralak, alper eta dirudunaren babesean, ekarri zuen kirol batzuen indartzea eta zaletuen lehiaketak antolatzea. Hastapenean, emakumeak elementu pasibo ziren kirol haien bilakaeran, ikusle eta animatzaile gisa joaten ziren konpetizioetara, baina pittinka-pittinka saloietako jokoak baztertuz joan ziren, eta kanpoko ariketez eta joko antolatuez zaletzen, hala nola cricketa, patinaia, tenisa eta arku tiraketa. Mendearen hondarrean kirola demokratizatzen hasi zen, hartara arte dirudunen eskutan bakarrik bait zegoen. T. Arnold-en eraginez eskoletan sartzen hasi zen eta ariketa antolatu eta egituratuaren iraultza suposatu zuen, hitz batez esateko, kirol modernoaren ideia gauzatzen ari zen, non emakumea era lotsatian izanik ere parte hartzen hasia bait zen.

XX. mendearen hasieran Joko Olinpikoak berrezarri izana aurrerapausu handia izan zen kirola emakumeentzako erreinbidikazio horretan. Nazioarteko Batzorde Olinpikoak emakumezko atletei parte hartzea ukatu zienean, haiek erantzun bateratua eman zuten eta haien ahotsa entzun eta onartu behar izan zuten. Horrela bada, 1912ko Olinpiadaz geroz kirol probaren batetan parte hartzen hasi ziren, eta hasitako bide hori zabalduz joan da gure egunotara arte, nahiz eta oraindik ere emakumezko ordezkariak gabeko kirolak baden. Olinpismoak artean ere gizonezkoen esparru izaten segitzen du, eta ez dago benetako berdintasun aukerarik.

Horiek horrela, argi dago nazioak demokratizatzen diren neurrian, ekonomia eta gizarte aldetik garatzen diren neurrian, sexuen arteko eskubide berdintasuna ere egiazkoagoa bihurtzen den heinean, kirola ere guztiengana hurbiltzen dela, maila apalenetako klaseetara ez-

ezik baita emakumeengana ere. Bukatzen ari da garai hura, non emakumezkoen presentzia kirol munduan klubaren egintza sozialetara joatea besterik ez baitzen, (baileak, afariak edo tonbolak), horren ordean gaurregun parte hartzen dute kirol ekitaldietan.

1.6.1

SEXUEN ARTEKO EZBERDINTASUN FISIOLOGIKOAK

Emakumeek eta gizonek gorputz anatomiko ezberdina daukate, sexu bakoitzaren portaera fisiologiko ezberdina markatzen duena.

Oro har, emakumearekin alderatuz, gizonezkoaren gorpuzkera handiagoa izan ohi da, muskulu tasa ere handiagoa dauka eta baita bular edukiera ere (bolumen aerobikoa %25etik 30era handiagoa da emakumeetan baino); bihotz taupaden kopurua minutuko txikiagoa da gizonezkoetan, zirkulatzen duen odol bolumena handiagoa den bezalaxe; gorputzean gantza pilatzeko ahalmena emakumeena baino txikiagoa da.

Izadiak gizonezkoen anatomia ezaugarri horiekin hornitu du eta horregatik gizonak ahalmen fisiko handiagoa du emakumeak baino konpetizioetan emaitza hobeak lortzeko, kirolean esaterako. Unadura fisikora emakumea aisago iristen da eta emaitza kaskarragoekin. J. Láther-ek dio besakada berdinarekin eta palanka berdina eginez emakumearen ahalmen muskularra gutxi gorabehera gizonezkoaren %78 baizik ez dela.

Bi sexuak bereizten dituzten ezaugarri horietaz gainera, badira beste batzu biologia motakoak, ugalketa aparatuarekin eta horrekin doazen eginkizunekin zerikusirik dutenak, esate baterako hilekoa, obulazioa, haurdunaldia, edoskitzea eta menopausia, eta hauek denek emakumeei oztopoak jartzen dizkiete ariketa fisikoa egiterakoan.

Kirol medikuntzako adituek diotenez, ezberdintasun anatomiko eta fisiologiko guzti hauengatik emakumearen kirol errendimendua gizonezkoenaren %60tik %90era bitartekoa baizik ez da izaten. Emakume batzuei hilekoaren kariatz ohizko ahalmena %30 murrizten zaie.

Psikologiari dagokionez, dirudienez emakumea arruntean ez da gizonezkoak bezain lehiketa zalea izaten. Horrexegatik kirol arloan gizonek ez bezala emakumeek ez dute beren errendimendu fisiologikoa muga-mugaraino behartzen.

Eragozpen hauengatik guztiengatik ere, frogatu ahal izan da emakumeen berezitasun biologikoak ez direla oztopo gorputz garapen egokia eta goi mailako errendimendu fisikoa lortzeko, alabaina, gizonen emaitzekin alderatuz gero, apalagoak izango dira.

Dena den, entrenamenduak alde horiek deusezten ez baditu ere, lagundu du emakumezko kirolari elitekoek erdietsi dituzten markak gero eta hobeak izan daitezen, are gehiago, joan den hamarkadako gizonetzko txapeldunenak baino hobeak izan daitezen, nahiz eta egungo gizonezkoenak berdintzen ez dituzten.

Zailtasun guzti hauek: fisiologikoak, psikologikoak eta batez ere sozialak, azken hau emakumeek bizi duten etxeko menpekotasun historikotik datorrena, eragin kaltegarria izan dira emakumeek era guztietako kirolak praktikatu ahal izateko, horregatik ez da harritzekoa zer-bait aukeratzera ahalegin fisiko handirik behar ez dutenak eta "maskulinoztat" jotzen ez direnak aukeratzeko joera izatea emakumeak.

1.6.2

SEXISMOA KIROLEAN

Hainbestetan errepikatu den esaldiak, emakumea "sexu ahula" dela eta ez dela gai esfortzu fisiko handiak egiteko, bere ondorioak ekarri ditu, hots, egoera horren aurka errebelatzen diren emakume guztiak, ezagutzen diren kirol guztietan, gizonetzkoek praktikatzen dituztenetan aritu eta praktikatu nahi duten emakumeak, gaizki ikusiak izatea.

Ikusirik emakumeak gizonak behartuta izan duen menpekotasun historikoa, joko eta kirol arloan ere azaldu dena, ez da harritzekoa emakumea lehengo egoeratik atera eta gizonak beretzat hartuta zituen esparruak okupatzea iraultzat kontsideratzea, ez bakarrik gizarte eta lan munduan, baita aisia arloan ere, hain itxia zegoen aisia arloan, arestian ikusi dugun bezala, hala nola garapen fisiko eta gorputzarenean, lehiaketa eta errekorrek barne direla.

Alyce Cheska antropologoak egoera hau aztertuz, emakumeak kirol arloan sartzea, gaur egun gertatzen den bezala, "anomalía sozialtzat" jotzen du. Emakumeen partaidetza kirol konpetizioan ia ezin onartuzkoa zela defendatzeko erabili izan diren argudioak azaltzen ditu:

- "Kirol ekintza nekagarriek emakumearen ugalketa funtzioan arazoak sor ditzakete". (Argudio honen arabera emakumearen helburu behinena ama izatea da, pertsona gisa gartztea albo batera utziaz. Horregatik, sozialki debekatua dago funtzio horri kalte egin die-

zaiokeen guztia. Hala ere, begibistakoa da emakumeen organo sexualak babestuago dardela gizonezkoenak baino).

- "Ukipenezko kirolak ez direla itxurosoak bere burua errespetatzen duen emakume barentzat, esan ohi da, eta horiek praktikatzen dituztenek ziurrenik lesbianak izan behar dutela". (Argudio hau onartzen duenak pentsa lezake era horretako kirolak praktikatzen dituzten gizonak ere homosexualak izango direla).

Mendearen hasieran, emakumeek Joko Olinpikoetan parte hartu nahi zutenean arazorik izan zen kirol jazkiari buruz, arina eta arrazoizkoa behar zuen izan eta. Garai hartako kirolariak halako jazkiak erabiltzen hasi zirenean, ordura arte ohizkoa ez zen bezala gorputzeko zati batzu bistan jartzen zirelako, besoak, orkatilak eta bernak, neurri batean, moralik gabekotzat harterazten zituzten. Hala eta guztiz ere, tradizio hausteko jarrera hartatik aurrera, kirol arropa gaztetasunarekin eta modernotasunarekin lotu izan da, eta emakumeek masiboki erabiltzen dituzte, eta horrela gaur egun kirolariaren irudia positiboa da: sana, dinamikoa, alai... Irudi honi etekin komertziala ateratzen diote kirol arroparen fabrikatzaileek, jatzeko estilo berri bat inposatu bait dute: sport jazkiarena.

Emakumeek azkarki saiatu behar izan dute kirol arloan onartuak izateko, betidanik gizonezkoen esparrua izan bait da. Frangotan irain pertsonalak ere jasan dituzte gizarteak emakumeentzat onartzen ez zituen kirolak praktikatu nahi izateagatik, eta gutxietsi nahian ematasun eza egotzi zaie.

Illo honetan, 1936ko Berlingo Olinpiadan Nazioarteko Batzorde Olinpikoak presio gogorra egin zuen, debekuak jarritz emakumeek "gogorregi" jukatzen ziren proba batzuetan parte har ez zezaten.

Goi mailako emakumezko kirolariak 70.eko hamarkadan, artean ere barne gatazka franko jasan behar izan zituen, bere buruarekiko eritzian, zeren kirolerako zuen zaletasuna eta hartan saiatzea ez bait zetorren bat garaian garaiko emakumezkoen ematen zitzaizkien egin-kizunekin. Sarritan, emakumezko kirolaria aukera egin beharrean egokitu da, emakumea izan ala atleta. Atletismora dedikatzea hautatzen baldin bazuen, arriskurik ez zitzaion faltako, gizarteak gaitzetsi zezakeen eta behar bezalako emakumea ez zelako salaketak pairatu beharrean izan zitekeen.

Hortan nabari da gizartea bera dela, matxista usainarekin, emakumeek zein kirol egin behar duten erabakitzen duena eta zein diren, praktikatuz gero, emakumearen "ohorearentzat" kaltegarri izateko arriskutsuak. Beraz, kirol batzu maskulinoak dira, eta horiek ez di-

tuzte emakumeek praktikatu behar; beste batzu, aldiz, femeninoak dira, eta horietan emakumearen izen ona ez da arriskutan jartzen.

Duela gutxi, 1978an, Ingalaterrako Futbol Federazioaren jarrera ofiziala, bere Idazkari Orokorraren hitzetan hauxe zen: "neskek futbolean egitea ez da naturala". Baieztapen honekin, kirol hori arautzen duen erakundeak egina, sozialki galerazita daude futbola gustoko izan eta praktikatu nahi duten neska guztiak.

Futbola, gizonezkoen kirol hegemonikoa izanik, ez da bakarra, haien menpe beste asko daude oraindik, adibidez indarra, indarkeria, arriskua eta erresistentzia oinarritzat dauzkaten guztiak. Aurrez aurre kontzeptu hauen aurka estetika, malgutasuna eta grazia lirateke emakumearen ezaugarri gisa, eta gizarteak ere berarentzat eskusiboki gorde ditu. Alde horretatik, ezaugarri horiek dituzten kirolak, esaterako, gimnasia erritmikoa, patinaia artistikoa edo antzekoak praktikatu nahi dituzten gizonak gizartearen aurrean gizontasun gutxikoak izango dira. Ez dago urrun joan beharrik, hortxe daukagu sexismoa kirolean.

Zama guzti horrekin, txalogarriak dira kirolaren eremuan berdintasunari ateak ireki dizkionten emakumeak, historiaren joerari eta gizartean nagusi ziren erizpideei aurre eginez onartuak eta errespetatuak izateagatik.

Hauek izan badira gure mendebaldeko kulturaren emakumeek jasan behar izan dituzten baldintza sexistak, besteetan, batez ere garatu gabeko nazioetan, aukera berdintasunak ezezik aukerak berak ere falta dira. Horixe gertatzen da Afrikako lurralde askotan, non kirolerako ematen den diru apurra gizonezko atletak entrenatzeko izan ohi da, horiek lortuko dituztelakoan marka onak nazioarteko konpetizioetan.

Kirolari buruzko azterketa hau amaitzeko, azpimarratu behar da emakumezkoen partaidetza nazio baten modernotasunaren erakuskari soziologikoa izan daitekeela, eta hango egiazko demokrazia eta eskubide berdintasunarena ere bai. Nazio bat modernoa dela esateko sexismoaren tabuak desagertu behar dira, gizonezkoek normalean praktikatzen duten edozein kirol egin nahi duten emakumeenganako inolako bereizkeriarik ez da izan behar, eta instituzioek bi sexuentzat antolatu behar dituzte kirolak. Artean ere arras urrun gaude gure nazioan modernotasun horretara iristeko, baina mentalitatea aldatuko duen hazia eratu da eta gizartearen balore eta ohituren aldaketaren abiada biziagotu egin da, zentzu horretan etsigabe saiatu diren emakume aitzindariak esker.

Emakumezkoen kirola gerora zer izango den galdetzen badiogu geure buruari, antzeman daiteke gero eta partaidetza handiagoa izango dela lehen gizonezkoentzako soilik izaten

ziren kirol batzuetan. Mota guztietako kirolek eskaintzen dituzten aukerei buruz informazio gehiago izanik, gizartearen ohiturak jartzen dituen oztopoak gaingituz kirol horietan arituko diren emakumeak ugalduz joango dira.

Goi mailako lehia, non emaitzei ematen bait zaie lehentasuna, emakumeak ere egiten du gizonezkoen eredu zinetikoa, hori bait da erreferentzia marka hobeak lortzeko. Haatik, marka horiek ez dira behinere gizonezkoenak bezalakoak izango, sexuen artean dauden fisiologi ezberdintasunengatik, horiek mugatzen dituztelako ezinbestez sexu bakoitzaren ahalmen organikoa. Baina ahalik eta emaitza onenak erdiesteko herronka, gero eta hobe izateko go-go garatu eta gozatu behar dute emakumeek, sexuen arteko konparaketa guztietatik at.

1.6.3

GERTAERAK ETA IRUZKINAK

Ondorio gisa, duela gutxi izandako gertaera batzu aipatuko ditugu, emakumeek kirol munduan nozitu behar duten egoera adierazten digutenak.

- Denek dakite emakumeek kirol lehiaketetan jasotzen dituzten diru sariak, are eta goi mailako konpetizioetan ere, gizonezkoenak baino askoz apalagoak direla, tenisean bezala atletismoan eta krossean, e.a., nazioarteko mailan ezezik baita gure artean ere. Jakineko adibide bat jarritz, Santurtzi-Bilbo krossean, 1990ean korritu zen hartan, gizonezkoentzako lehenengo saria 200.000 pezetakoa zen, eta 75.000 pezeta emakumezkoentzako, kategoria berean. Ikus dezakegunez, gizonezkoen garaipenak emakumezkoenak hiru halako balio zuen.
- Edozein komunikabideko kirol albistegiari begirada bat botatzea aski da emakumezkoen kirolak duen inportantziaz konturatzeko: batere ez. Eliteko kirolari emakumezkoek bere ere ia ez daukate oihartzun sozialik batere, gizonezko kirolarien sonarekin alderatuz gero.
- Hain da txikia emakumezkoen kirolari jartzen zaion arreta, ezen oraindik orain Euskal Telebistak kalean eginiko inkesta batean, elkarrizketatuetako ia bat bera ere ez zen gai izan emakumezko kirolarien izenik emateko, edozein arlotakoa izanik ere, eta, alderantziz, gizonezko kirolarien izenak barra-barra aipatzen zituzten. Komunikabideek emakume kirolariez behar bezala informatuko balute, suspertzeko modurik egokiena izango litzateke. Egungo mentalitatea nabariki aldatuko litzateke eta ez lirateke egongo gizonezkoen kirolak eta emakumezkoenak, eta guztientzako kirola aterako litzateke irabazle.

- Eta gure herrian kirolaren gainean dagoen matxismoaz iharduteko aipatzekoak dira Bilboko egunkari batean iazko urrian eta azaroan argitaratutako bi gutun, zeinetan bi gertakari konkretu agertzen bait ziren:

1) Bilboko kirol klub batek emakumezko bazkide bati ukatu egin zion pala ikastaro baten parte hartzea, honela zioelarik: “neskek ezin dute, ez ditugu onartzen. Ez da emakumeentzako kirol egokia, emakumeek, besteak beste, nahikoa indarrrik ez dutelako”.

2) Aretu-futboleko lau jokalarik emakumezkoak adierazten zuteneguz Eguberrietako Haurren Parkean areto-futboleko neska ekipoak baztertuak zeuden kirol modalitate honetako lehiaketetan. Neska haiek eskatzen zuten mutilak bezala haiei ere lehiaketetan parte hartzen utzi ziezaietela.

- Egunkari beraren beste albiste batean, urrian, herrikirolen atalean titular hau agertu zen: “Sei emakumek hiru gizonezkoen herronka harri-proban”. Ez dakigu albistea zertan datzan, agian emakumea herrikiroletan ari dela, edo “emakumea/gizona” erlazioa bi eta bat dela kirol horretan.

- Emakunde aldizkariaren 3. zenbakiak erreportaia bat eskaintzen du Euskadiko emakumezko futbolari buruz. Hogei ekipo daude emakumez osatuak, liga txapelketa jokatzen dutenak; jokalariek, azpiegiturazko eta ekonomiazko baliabide ezaz, besteak beste, kexatzen dira, baina batez ere prentsak ez duela jaramonik egiten ezta partiduen emaitzez ere, eta hori horrela gertatzen den bitartean, gizonezkoen futbolak, hainbeste eta hainbeste kategoriatan, astelehenetako egunkarietan orri pilo bat betetzen du.

- Bola Jokoaren Bizkaiko Federazioak, 1990ean emandako lizentziei buruzko datuetan, azaltzen du: “Ez dago emakumezkoen lizentziarik, esfortzu handia eskatzen duen herrikirola delako”.

- Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik, oso bitxia da ikustea nola deitzen zaion emakumeari kirol mota bakoitzaren arabera. Horrela, federazio gehienetan kategoriak sexuaren arabera izendatzen dira: “maskulino-femenino” edo emakumeak-gizonak, baina beste batzuetan deitzen zaie: “damak-gizonak” neguko kirolak eta piraguismoan; “damak-jaunak” golfetan eta tiraketa olinpikoan; “gizonezkoak-emakumeak” halterofilia eta motoziklismoan eta “feminak” txirrindularitzan.

2.

Kirola gure artean

2.1

HELBURUAK ETA METODOLOGIA

2.1.1

HELBURUAK

2. eta 3. kapituluaren helburu nagusia da emakumeak kirol munduan zein parte hartzea izan duen aztertzea. Azterketaren zati hau gehienbat kuantitatiboa da eta lurralde geografikoz Bizkaira mugatzen da.

Helburu orokor hau bi multzotan bana dezakegu. Lehenbizikoa kirol instituzionalizatua aztertzea bideratuko da. Sailkapen honen barnean hiru maila ezberdin izango ditugu aztergai:

- Kirol federatua. Lurralde historikoan dauden federazioak zenbatuko ditugu, bai eta emandako lizentziak ere, sexutan eta kategoriatan banatuta.
- Udal kiroldegia. Erakunde horien kirol eskaintza arakatuko dugu, eta emakumeak nola baliatzen diren zerbitzu horietaz aztertuko.
- Kirola Euskal Herriko Unibertsitatean.

Bigarren multzoan oinarritzako kirola edo denontzako kirola izango dugu aztergai. Atal honetan mota honetako kirola egiten duten emakumeekin aurkituko gara. Ikusiko dugu zein eraketakoa den kirola sarri egiten duen emakumea, bere kirolik gogozkoenak, motibazioa, ilusioak eta arlo honi buruzko eritziak.

2.1.2

METODOLOGIA

Erabili den metodologia era askotakoa izan da, aztertu beharreko gaiari egokituia.

- Kirol federatuari eta unibertsitatekoari buruz zerrendak eskatu zaizkie Bizkaiko kirol federazio guztiei eta UPV/EHUko kirolaren arduradunari, hurrenez hurren.
- Kiroldegien eskaintza eta bazkideen kopurua ezagutzeko, horietako zuzendariei elkarriketatuta zaie banan banan. Lurraldeko zazpi ikastetxe publiko hautatu dira datuak har-

tzeko, (Artxanda, Deustua, Txurdinaga, Errekaldeberri, Gorostiza, Fadura eta Sakoneta) hoge mila biztanletik gorako hirigunetan daudenak: Bilbo, Barakaldo, Getxo eta Leioa, eta beste xehetasun bat, instalazio aldetik ongien hornitutako kiroldegia dituztela.

- Oinarrizko kirolariekin buruz buru harremanetan jartzea inkesta baten bidez lortu da. Inkesta hori 14 urtez gorako emakume guztiei egin zaie, hautatutako kiroldegietara ohizko orduetan joan zirenei, alegia. Laginketa bat finkatu zen kontutan hartuz udalerrri bakoitzeko populazio kopurua. Denetara 423 inkesta burutu ziren. Estatistikoki horrek ematen digu %95eko konfidantza maila, %5eko hutsegite muga kontutan hartuta. Datuok 1990eko abenduaren 3tik 20ra hartu ziren.

Aldez aurretik, eta inkestaren eta elkarrizketaren fidagarritasuna frogatzeko, aitzin ikerketa bat burutu zen Santurtziko udal kiroldegian.

- Galdesortak 33 galdera ditu eta gaien arabera multzo batzuetan banatua dago: datu soziodemografikoak, praktikatutako kirola, motibazioa, osasuna, itxaropenak, sexismoa, eritziak, etab. (Eranskinean agertzen da). Galdesorta norberak betetzeko diseinatu zen. Guztiarekin ere, hirurogeitamar emakumeri (denen artean %16), denak 40 urtetik gorakoak, une hartan "hurbileko betaurrekorik" gabe bait zeuden, galderak beste batek irakurri zizkien.
- Inkestetan ateratako datuak informatika bidez tratatu dira, S.P.S.S. programaren bidez.

2.1.3

TOKIAN TOKIKO LANARI BURUZKO IRUZKINA

Azterketa enpiriko orotan agertzen diren mugak, egin gogo denaren eta egin ahal denaren artean, behin eta berriz gertatzen den zerbait da, baina hala ere, ikerketa guztiek, zeinek bere arazoak ditu. Azterketa honen gorabeheraz mintzatuko gara, gertaera batzu aipatuz.

Ezusteko batzu izan ditugu datuak biltzera kirol erakundeetara jo dugunean. Hona lehenbizikoa, lanari ekin eta aurrenekoa, Bizkaiko Foru Diputazioko Kirol Sailak probintzian diren kirol federazioen datu estatistikorik batere ez duela aditu genuen. Atsegin handiz beren laguntza eskaini ziguten eta hasi ziren 43 federazioei informazioa eskatzen, horren ondorioz lehenbiziko gutunari %50ek bakarrik erantzun zioten. Behar genuen informazioa eskuratzeko behin eta berriz gutun gehiago bidali eta federazio bakoitzari telefonoz deitu behar izan genuen, horrek dakarren denbora galerarekin. Hala ere, ez ziguten federazio guztiek erantzun.

Beste gauza batek ere harritu gintuen, izan gineneko kiroldegietan, batean ere ez zutela bazkideen sexuka sailkatutako datu estatistikorik. Xehetasun honen berri ez dute ez oroharreko zen-

bakietan ez eta ikastaroetako kasu partikularretan ere. Kiroldegiak eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinetan izena emandako pertsonen izen zerrendak baizik ez dute. Horrexetatik, ezinezkoa izan zen kirol ezberdinetan aktiboki parte hartzen duten emakume eta gizonen kopurua egiaztatzea. Bilboko Kirolaren Udal Erakundea, azterketaren alde laguntza ematearren, bere borondatez prest azaldu zen hilabete batean burututako ikastaroen datuak eskuz ateratzeko. Ildo beretik dabil Euskal Herriko Unibertsitatearen Kirol Atala ere. Oso estatistika gutxi eta gutxi landutakoak ditu, horregatik ez dago unibertsitateko kirola sakonetik aztertzerik, hala ere eskertzen diegu dituzten datuak gogo onez eman dizkigutelako.

Begibistakoa da kirol erakundeak ez direla gehiegi arduratzen zenbat erabiltzaile joaten zaizkien eta haien ezaugarriaz, ikusi besterik ez zein datu gutxi dauden.

Aipatu behar den hirugarren puntua da ezin izan genuela Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kirol Zuzendaritzak emakumezkoen kirola suspertzeko zein egintza eta aurrikuspen proposatzen diren ezagutzea, eta bidenabar Euskadiko Komunitate Autonomoko emakumeen txapelketen eta marken berri izateko, bai eta kirol mailan Europako Komunitate Ekonomikoarekin zer harreman dauden ezagutzeko.

Tokian tokiko lan honetan alderik positiboena inkestan erantzun duten emakumeak dira. Eskertzekoa da izan den partaidetza handia eta galdesorta betetzeko interesa. Anekdotak gisa aipa daiteke presaka zebilen emakume batek inkesta momentu hartan bete ezinean etxera eramane eta korreoz bidali zuela.

Aipu gehienak inkestaren aldekoak izan dira, batez ere ikusi dutelako noizik behin azterketaren bat propio emakumeentzako egiten dela. Jubilaturen bat "diskriminatua" sentitu zen inkesta emakumezkoentzako bakarrik zela jakin zuenean. Haiek ere nahi izango zuten elkarriketatutakoak izatea.

2.2

KIROL FEDERATUA

Bizkaian 43 kirol federatuak daude. Horien zerrenda ondoko taulan agertzen da. Torneoetan eta lehiaketetan parte hartu nahi duen kirolariak federatuta egon beharra dauka.

Federazio bakoitzak kuota ordaintze duten bazkideen izen zerrenda dauka, eta bere kirol motari dagokion arauteria zehazten du, bai eta horren inguruko antolamendu instituzionala ere.

Ondoren azaltzen den taulan kirolari federatuen kopuru osoari dagozkion datuak datoz, federazioz federazio, bai eta emakumeen kopurua eta haien portzentaia ere.

1. TAULA 1990ean Federatutako pertsonak, kategoria guztietan

FEDERAZIOA	GUZTIAK		EMAKUMEEN	
	FEDERATU	GIZONAK	EMAKUMEAK	%
Xakea	758	731	27	3,5
Atletismoa	1.000	709	291	29,1
Automobilismoa	152	147	5	3,3
Saskibaloia	13.224	7.124	6.100	46,1
Eskubaloia	1.367	1.123	244	17,8
Beisbola	167	167	0	0
Bilarea	20	20	0	0
Bola jokoa	1.889	1.889	0	0
Boxeo	62	62	0	0
Ehiza	6.000	5.994	6	0,1
Txirrindularitza	3.444	3.412	32	0,9
Negu Kirolak	2.070	1.090	980	47,3
Gutxituen Kirola	31	31	0	0
Futbola	13.264	13.111	153	1,1
Gimnasia	—	—	—	—
Golfa	2.247	1.325	922	41,0
Halterofilia	259	252	7	2,7
Hipika	415	189	226	54,5
Hockeya	270	189	81	30,0
Judoa	2.365	1.869	396	16,7
Herrikirolak	507	469	38	7,5
Karatea	2.597	2.105	492	19,0
Borroka eta Sanboa	249	233	16	6,4
Mendizaletasuna	4.949	3.654	1.295	26,2
Motoziklismoa	40	40	0	0
Motonautika	104	104	0	0
Igeriketa	1.388	838	550	39,6
Patinaia	1.594	1.402	192	12,0
Euskal Pilota	2.589	2.584	5	0,2
Arrainketa	609	575	34	5,5
Piraguismoa	99	86	13	13,1
Arrauna	—	—	—	—
Rugbya	—	—	—	—
Salmamendu eta Sorosletza	—	—	—	—
Urbarrukoak	942	898	44	4,6
Surfa	434	391	43	10,0
Taekwondo	825	695	130	15,7
Tenisa	1.486	1.028	458	30,8
Mahai-Tenisa	170	154	16	9,4
Arku Tiraketa	—	—	—	—
Tiraketa Olinpikoa	1.240	1.200	40	3,2
Bela	162	141	21	13,0
Boleibola	—	—	—	—
GUZTIRA	68.979	56.122	12.857	18,6

(— Ez dago daturik)

Iturria: Kirol Federazioak eta bertan prestatutakoa.

Kopuru hauek aurrean direla ikus dezakegu futbolak eta saskibaloiak dituztela federatu gehien; hirugarren tokian eta aurrekoen lizentzia erdiak dituela ehiza dator eta laugarren postuan mendizaletasuna. Bostgarrenean txirrindularitza dakusagu. Bi mila lizentzia gutxienez dituzten federazioak hauek dira: neguko kirolak, golfa, judoa, karatea eta euskal pilota.

Hala ere, emakumezkoen lizentzien kopurua oso bestelakoa da zifra osoarekin alderatzen badugu. Emakumeen lizentziak guztien %18,6 baino ez dira. Zenbaki absolutuetan emakumeak saskibaloian daude federatuak gehienbat beste kirolen gainetik, alde handiarekin. Askoz beherago dago mendizaletasuna, golfa eta neguko kirolak, mila lizentzia inguru.

Azpinarratu behar da kirol batzuetan emakumezko lizentzia bakar bat ere ez dagoela, hala nola: beisbola, bilarea, bola jokoa, gutxituen kirolak, motoziklismoa eta motonautika. Eta beste batzuetan haien presentzia testigantza hutsa baizik ez da: automobilismoa, ehiza, halterofilia eta euskal pilota, hamar emakume baino gutxiagorekin.

Kirol federatuaren barrenean emakumearen partaidetza hagitx apala da oro har; hipikan, ordea, ohiz kanpoko datuak ikus ditzakegu: kasu bakarra da gizonezkoak baino emakumezkoak gehiago izatea, %54,5, hain zuzen ere. Saskibaloian eta neguko kirolean zenbakiak ehuneko berrogeitamarretik gertu daude. Emakumezkoen partaidetza %25 baino gehiagorekin hauek daude: atletismoa, golfa (%41), hockeya, mendizaletasuna, igeriketa eta tenisa.

Datu hauekin pentsa daiteke gizartearen aburuz aipatutako kirolak direla emakumearentzat egokienak, eta horregatik, emakumeen multzoa era zabalago batean dago ordezkaturik horietan. Esan daiteke, halaber, emakumea kirol munduan sartzea esparru sozial guztietan ari dela gertatzen, izan ere, tradizioz goi mailako klase sozialen esku egon diren kirolak, demagun hipika edo neguko kirolak, gaur egun masiboki praktikatzen hasiak dira.

Hurrengo taulan bi sexuek zein kirol duten nahiago ikusteko aukera izango dugu, kirol bakoitzean zeinek duen lizentzia gehien kontutan hartuz eta beti ere ditugun datuen arabera:

2. TAULA Kirolen lehentasun ordena, sexutan banatuta

ORDENA	EMAKUMEAK KIROLA	GIZONAK KIROLA
1.	Saskibaloia	Futbola
2.	Mendizaletasuna	Saskibaloia
3.	Neguko Kirolak	Ehiza
4.	Golfa	Mendizaletasuna
5.	Igeriketa	Txirrindularitza
6.	Karatea	Euskal Pilota
7.	Tenisa	Karatea
8.	Judoa	Bola jokoa
9.	Atletismoa	Judoa
10.	Eskubaloia	Patinaia

Iturria: Kirol Federazioak eta bertan prestatutakoa.

Puntu azpimarkagarri bezala aipa genezake futbola, gizonezkoentzat aurreneko tokian dagoena, ez dela hamar lehenengoetan agertzen emakumezkoen zerrendan, 13garrenean baizik.

Zerrenda bietan agertzen diren kirolak lau dira, eta antzeko lehentasunarekin gainera: saskibaloia (1. eta 2.), mendizaletasuna (2. eta 4.), karatea (6. eta 7.) eta judoa (8. eta 9.), emakume eta gizonen artean hurrenez hurren.

Kirol bakoitzaren portzentaien banaketa gauzatzera desberdintasun nabarmenak sortzen dira bi sexuen artean. Emakumeen artean lehen postuan dagoenak, saskibaloiak, emakumezkoen lizentzia guztien %47,4 hartzen dituen bitartean, futbolak, gizonezkoen rankingean lehen tokian bait dago, gizonen lizentzien %23,3 biltzen ditu. Zenbaki absolutuetan, lehentasuna ematen zaien hamar kirol hauen artean emakumeen eta gizonezkoen lizentzia guztien %91,2 eta %76,9 biltzen dituzte.

Ikus dezakegunez, gainerako federazioen partaidetza-maila hagitz apala da, batez ere emakumeei dagokienez, izan ere, lizentzia kopuru osotik gelditzen den % 8,8a (1.129 pertsona) beren artean banatu behar bait dute. Beraz, emakumeen kasuan gizonezkoen artean baino desoreka handiagoa dago kirol ezberdinetan parte hartzerakoan.

Benetan interesgarria izango litzateke azterketa berau egitea hamar urteren buruan, eta konparatu ahal izatea emakumezkoen lizentziak nola eboluzionatzen duten eta nola banatzen diren kirol federatu ezberdinen artean.

2.2.1

KATEGORIAK

Federazio bakoitzean inskribatutako pertsonak, zazpi urtetik hasi eta adinaren arabera, talde ezberdinetan sailkatzen dituzte.

Federazioek, nork bere erizpidea erabili ohi dute adin mailak (kategoriak) eta horietako bakoitzak zein urte tarte izango duen zehazterakoan. Hortaz, ez dago denak biltzen dituen homologatutako sistemarik. Hala eta guztiz ere, ahalegindu gara horiek elementu berdineko multzotan bateratzen, kirol prozesuan adin ezberdinetako pertsonen jokabidea aztertzeko. Hamazazpi federazio ezik beste guztiek ez dizkigute kategoria ezberdinetako datuak eman, horregatik, aurkeztuko dugun kirol taulak ez du informazio hori jasotzen. Estatistika datuak darabiltzagun profesionaloi hainbeste eragozpen sortzen dizkigun arazoak konponduko direla espero dugu, eskumena duen Institutzioak informazioa zentralizatzerik izaten duenengan.


3. TAULA Kategorien araberako banaketa. 17 federazioetako datuak

		EMAKUMEAK		GIZONAK	
Kategoria		Lizentzien kopurua	%	Lizentzien kopurua	%
Benjamin	(7-8 urte)	73	0,9	782	3,5
Alebin	(9-10 urte)	110	1,3	1.031	4,5
Infantil	(11-12 urte)	2.776	30,0	4.676	20,7
Jubenil	(13-14 urte)	1.393	15,0	2.714	12,0
Kadete	(15-16 urte)	1.296	14,0	1.673	7,4
Junior	(17-18 urte)	402	4,4	1.723	7,6
Senior	(19 urtetik gora)	3.250	34,4	10.003	44,3
GUZTIRA		9.300	100,0	22.602	100,0

Iturria: Kirolen federazioak. Bertan prestatutakoa.

Taulan emandako portzentaiak miatuz baieztza daiteke kirolaren praktikan gorabeherak izaten direla. Irudian hobeki ikusten da hori.

1. GRAFIKOA Federatutako pertsonen portzentaiak irudia, adinaren eta sexuaren arabera



7 urtetik 10era bitarte ez da kopuru aldetik partaidetza handirik izaten bi sexuetan. 11-12 urtetan neskek gora egiten dute eta hutsaren hurrengo zen portzentaiatik, %2tik %30era pasatzen dira, mutilek baino ia hamar puntu gainerik. Hurrengo adin multzoan bi sexuetan sekulako beherakada suertatzen da: kirolaren praktika erdira jaisten da. Nesken kasuan lehenengo hilekoak agertzea izan daiteke arrazoiak.

Portzentaiek behean segitzen dute nerabezaro osoan, hala ere neskak mutilak baino partaidetza maila hobean mantentzen dira. 15 urtetik 18ra bitarte gertatzen dira mutil nerabeen kota apalenak, eta partaidetzaren beherakada hori 17 urtetako nesketan izan ohi da. Beherapen horren arrazoiak izan daiteke lehen eta bigarren mailako ikasketen amaiera, horrek askotan bait dakar lehenengo entrenamenduak hasi zireneko taldea sakabanatzea.

19 urtetik aurrera kirola berreskuratzen dute bi sexuek. Oraingo honetan gizonezkoek aurrena hartzen diete neskei, %10eko partaidetza handiagoarekin.

Neskatoen portzentaia 11 urtetik 16ra bitarte mutilena baino hobia izan baldin bazen ere, 17-18 urtetik aurrera alderantziz gertatzen da. Adin horietan, eskuarki, bikoteen harremanak areagotu egiten dira eta, gehienetan, mutilak interesik ez badu inolako kiroletan, neskak ere berea utzi egiten du; kontrakoa ez da gertatzen, izan ere, mutila kirolaria bada, neskak parte hartuko du ikusle bezala baldin bada ere.

Nerabetasuna iraganik, nortasuna finkatuta eta bizitza estabilizatu ondoren, kirolak bere to-
kia hartzen du berriro, eta eskuhartzeak gora egiten du bi sexuetan, nahiz eta, ikus deza-
kegunez, 19 urtetik aurrera emakumeak gizonezkoen azpian kokatzen diren. Adin horreta-
tik aitzina etxeko lanak egin behar horrek, emazte eta ama gisa, kontrako eragina izango
du federatutako kirola praktikatzerakoan.

Kirol federatuari buruzko azalpen hau bukatzeko, aipatu behar, eliteko edo goi mailako ki-
rola ez den arren, horren ernamuina dela, eta bistan dagoenez emakumeak gaur egun oso
partaidetza apala dauka egituratutako egintza fisiko horretan. Kirol tradizioa derrigorrez-
koa da modu iraunkorrean praktikatu ahal izateko.

Gure inguruneke emakumea oraindik berria da esparru horretan. Itxoin egin beharko da be-
launaldi berriek beren bideak hauta ditzaten, erabaki horiek hartzeko benetako aukerak bal-
din badituzte behintzat.

2.3

UDAL KIROLDEGIAK

Probintziako udalerri guztiek ez dute eritzi berbera beren herritarrei kirol instalazioak es-
kaintzerakoan, argi baino argiago badago ere populazioarentzat ariketa fisikoa onuraga-
rria dela. Agerian dago zenbaterainoko desberdintasunak dauden baliabide horniduretan
herri batzuen eta besteen artean.

Ezberdintasun horiek ez dira, ordea, Bizkaian soilik gertatzen. Hiru euskal lurralde haueta-
ko hiriburuetan ere diferentzia handiak izaten dira.

Gasteizko Udalak aurrekontu handiena bideratzen du kirol arlorako, herritar bakoitzeko
5.000 pezeta urtean, Donostian eta Bilbon berriz 3.750 eta 3.200 pezeta gastatzen dituz-
te kontzeptu bereberean.

Komunitate Autonomoan hobekien hornitutako hiru kiroldegietatik bi Bilbon daude, Txurdina-
gakoa eta Errekaldekoa, zenbait kirol praktikatzeko instalazio aproposak eta ekipamendu bi-
kainak bait dituzte; horretaz aparte ikastaro eta kirol eskola mota ugari eskaintzen dituzte.

Bizkaiko udalerrien arteko desberdintasunez dagokienez kasurik nabarmenena bezala Eran-
diokoarena aipatu behar da, izan ere, 25.000 biztanleko zentsuarekin futbol zelai bat bes-
terik ez bait dauka, kirol baliabide publiko bakarra. Udalbatzaren interesa kirolarekiko argi
dago bertako bizilagunen kirol sustapenerako daukaten aurrekontua ikusirik.

Gauzak horrela, ezberdintasun hauen aurrean eta gure xedetariko bat burutzearen, hau da, kirol arloan emakumeek zeren eragina duten eta zein kirol zaien gogozkoen jakiteko, Bizkaiko zazpi kiroldegi hautatu ziren datu bilketarako, eta erizpide gisa ongien hornituta zeudenak aukeratu ziren, zerbitzu eskaintza ahalik eta zabalena izan zedin.

Guztiarekin ere, datu bilketa lanetan ateratzen diren arazoez mintzatu garen bezala (2.1.3), ezin ditugu datu estatistiko orokorrak zerbitzu guztietaz eman, teknikoki ezinezkoa izan bait da, ez dugulako sexu eta adinaren arabera datu estatistikorik eskuartean izan; aldagai hauek ez dira azaltzen datuen informatizazioan, ez abonatuene edo erabiltzaileenak ez eta kirol ikastaro ezberdinen partaideenak ere.

Oztopo hauek izan badira ere, Bilboko eta Barakaldoko K.U.E.ek eginahalak egin zituzten beren eskura zeuden erreferentzia guztiak ematearren:

- Bilboko Kirolerako Udal Erakundea, bost kiroldegik osatzen dute, eta denen artean 41.684 erabiltzaile izan zituzten 1990ean. Zehatz-mehatz ez dakite kopuru horretatik zenbat emakume eta zenbat gizon ziren, baina ziur daude kiroldegietara doazenen artean emakumeak %60 inguru direla. Bakarkako abonatuak dagokienean %39,2 emakumezkoak dira eta gainerako %60,8 gizonezkoak.
- Barakaldoko K.U.E.ek dioenez 1989an 16.000 pertsonak erabili zituzten udalerriko instalazioak, egunean 2.486 pertsona, batez beste, instalazio guztietan. Astegunetan igerilekuan 723 pertsona izan dira neguan, eta 906 udaran, batez beste. Sexu aldagaiaz datirik ez bada ere, Gorostitzako kiroldegiko arduradunaren eritziz astegunetan emakumeek %70tik 80ra bitarte igerilekua erabiltzen dute.

2.3.1

IKASTARO ESKANTZA

Ikustatu diren kiroldegiek ikastaro eskaintza joria dute denek, kirol mota ezberdinak ikasi eta hobetzeko antolatuak, beti ere kiroldegiaren ahalbide ekonomikoen eta instalazioen arabera. Partaideen kopuruak, sexuaren eta adinaren arabera sailkatuta ez izan arren, zerrenda indibidualetatik datu hauek atera ahal izan ziren, 1991ko urtarrilari zegozkionak, Bilboko kiroldegien kasuan eta 1990eko uztailera, Barakaldoko kasuan.

4. TAULA Bilbo eta Barakaldoko K.U.E.ek antolatutako ikastaroetako izenemateak (hilabete bati dagozkion datuak, adin guztietan)

KIROLA	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	%
				EMAKUMEAK
Aerobic	189	0	189	100,0
Atletismoa	28	14	14	50,0
Ohe elastikoa	6	4	2	33,3
Frontenisa	336	173	163	48,5
Gimnasia artistikoa	49	22	27	55,1
Mantenimenduko gimnasia	633	24	609	96,2
Gimnasia erritmikaa	208	0	208	100,0
3. Adinekoendako gimnasia	406	92	314	77,3
Hipika	24	12	12	50,0
Judoa	45	41	4	8,9
Karate	115	80	35	30,4
Borroka	11	7	4	36,3
Muskulazioa	809	571	238	29,4
Igeriketa	718	271	447	62,2
Taekwondo	17	14	3	17,6
Tenisa	312	169	143	45,8
Besabaloia	17	1	16	94,1
GUZTIRA	3.923	1.495	2.428	61,9

Iturria: Bilboko K.U.E. eta Gorostitzako Kiroldegia. Bertan prestatutakoa.

Kopuru hauek erakusten digute zein den emakumezkoen partaidetza kiroldegi hauek antolatutako “guztiendako kirolean”. Kontuan hartu behar den lehenbiziko datua da ikastarogile ororen artean %62 emakumeak direla eta parte hartzen dutela, neurri handiagoan nahiz txikiagoan, eskaintzen zaizkien kirol guztietan.

Kopuru hau aldatuz doa kiroldegiz kiroldegi. La Casilla, Artxanda eta Deustukoetan emakumeen portzentaiak %71 eta 79 bitartean daude. Emakumeen erabateko gehiengo honen aurrean Txurdinagakoa daukagu %47rekin eta Errekaldekoa %54rekin.

Dena dela, kirol mota guztiek ez dute emakumeen parte hartze berbera. Horietariko batzuetan, demagun, aerobic eta gimnasia erritmikoan, emakumeak baino ez dabiltzanak, gizonezko bat bera ere ez da sartu ikastaro horietan. Gizonezko gutxirekin agertzen dira mantenimenduko gimnasia eta besabaloia.

Hirugarren adinekoen partaideak, batez ere haien ezaugarriei egokitutako gimnasia agertzen dira, eta hauen artean ere emakumeek erabateko gehiengoa dute; baita igeriketan ere, neurri horretan ez izan arren.

Gizonezkoek nagusigoa dute buruz buruko konbatearekin zerikusirik duten kirolletan, hala nola borroka eta arte martzialetan: judo, karate eta taekwondon; orobat muskulazioan, non partaideen herena baino gutxiago bait dira emakumezkoak.

2.3.2

KLUBAK

Ikustatutako kiroldegien instalazioak, bazkide edo abonatu eta noizbehinkako erabiltzaileez gain kirol elkarte ezberdinetako kirolariek ere erabiltzen dituzte, hauek lehiaketa eta torneotarako entrenamendutan saiatzen direlarik.

Emakumezko talderen bat ere entrenatzen da kiroldegi hauetan: Txurdinagan saskibaloiko hiru talde eta beste hiru eskubaloikoak, eta Errekalden bat futbolekoa eta bi eskubaloikoak (1. eta 2. dibisio nazionalekoan).

Emakumezko talde hauek gauza bitxitzat hartzen dituzte hain bakanak direnez gero. Gizonezkoek, agian tradizioz, ohitura handiagoa dute taldeak eratzeke, horregatik, gizonezkoen kirol taldeak askoz gehiago izateaz gainera, mota gehiagokoak ere badira.

2.3.3

ERABILTZAILEAK

Genero marka duten hizkuntza batzuetan, hizketa arruntean bi sexuen ordezkari gisa genero maskulinoa erabiltzen da, eta hori ez da oso zuzena kiroldegien erabiltzaileei dago-kienez, izan ere, emakumeak askoz gehiago bait dira gizonak baino.

Kontu zehatzik ez dago kiroldegietara doazen emakume, gizon, neskato eta mutikoen kopuruz, baina bisitatu diren kiroldegien zuzendariek behin eta berriz adierazi digute emakumeek gizonek baino gehiago erabiltzen dituztela kirol instalazioak, baina ondoren aipatu dugun zenbait ñabardurarekin.

Emakumeen kasuan goizeko orduz baliatzen dira, eta hortxe dago alderik nabariena. Horietako asko, goizeko lehenbiziko orduetan hasten dira beren igeriketa ariketekin, eta hori egunero. Halaber, gimnasia ikastaroetan ere gehienak berak dira. Arratsaldeetan joaten diren emakumeak gazteagoak dira, eta aldi berean gizonezkoen kopurua gehitzen da.

Emakumeek gizonek baino gehiago hartzen dute parte ikastaroetan. Gizonezkoak indibiduala-koak dira kirolean, edota lagunarteko ekipoak antolatzen dituzte palaz jokatzeko, futboleko, e.a.

Jakina denez, kiroldegietako instalazio batzu, frontoiak eta saskibaloia nahiz futboleko kantxak, ez dituzte behinere emakumeek erreserbatzen. Gaur egun behinik behin ez da batere normala emakume bat palaz, edo baloi batekin ostikoka ari dela ikustea. Alde horretatik, adierazi dutenez azken urte honetan 60ren bat ekipo eratu dira, eskolako nesken artean, areto-futbolera (futbito), horrek gerora emakumezkoen presentzia gehituko du kiroldegietan, hazioa behar den bezala errotzen bada.

Ikastaroak buruz, monitorea diote emakumeen artean jarrera ona izaten dela eta seriotasun handiagoa asistentzian, bai eta diziplinan ere, ariketak egin behar direnean. Era berean azpimarratzen dute kiroldegietara egunero eta urteetan joaten diren emakume asko adintsuak izaten direla; 60 urte eta gehiago izatea ez da inolako oztopoa ariketa egin eta horretan atsegin izateko.

Zenbait kasutan, kirol ikastaroetan izena ematen duten etxeakoandreak terapiatzat hartzen dute; etxetik ateratzea, ohizkoa ez den beste zereginen bat izatea eta beste pertsonekin harremanetan jartzea, hori guztia txiki gomendagarria da izaten diren krisi depresiboetatik ihes egin ahal izateko.

Gorostitzako kiroldegia, 17 urtez gero ihardunean segitzen du eta xehetasun jakinarrak eskaintzen dizkigu gaur egun kirola egiten duten gazteen kopuruari buruz, izan ere, duela hamar urte izaten zen jendetzarekin konparatuz zeharo murriztu bait da. Kantxetako erreserba-orriak (tenis, saskibaloia, areto-futbola) antzina beti beteta eta txanda noiz iritsiko egoten ziren baina gaur egun ez dira inoiz betetzen, eta eskatzen dutenak hogeitamar urtetik gorakoak izaten dira. Agi danean, Barakaldoko gazte eta nerabe talde handi horri kirolak ez dio batere axola. Interesgarria litzateke jakitea ea gauza bera gertatzen den lurraldeko beste udalerrietan.

Horiek horrela izanik ere, federazioen datuak miatuz gero, badirudi gazteen artean maiz gertatzen dela haurtzaroan edo nerabetasun hasieran kirolen bat praktikatu dutenek gero urte batzuetan bertan behera uztea eta 20 urteak aldera utzitako hura berreskuratzea, beren bizitza bideratzen dutenean.

Bilboko K.U.E.ko arduradunetarikoa batek esanda, emakumea familiaren kirol aktibitatearen motorea da, batez ere haurrena. Bera da kirola suspertzen duena eta seme-alabak kiroldegira eramaten dituenak, eta torneo edota lehiaketetan laguntza eman eta animatzera joaten dena.

Antza denez, nesken artean, piskana piskana izanik ere, betidanik gizonezkoenak soilik izan diren konpetizioko eta ukipen pertsonaleko kiroleetan parte hartzeko interesa sortzen ari da; neska toek bidea zabaldu dute, zeren dagoeneko ehuneko berrogeitamar baitira iharduera horietan.

Euskal Herriko Unibertsitatearen kirol eskaintza zabala da eta eskaintzen dituen kirolen artean batzu federatu gabekoak dira, baina erakargarriak dira hala ere ariketa eta, oro har, kirola atsegin duten pertsonentzat.

Arestian adierazi dugu Unibertsitateak ere ez duela estatistikarik berak antolatzen dituen kiroletan parte hartzen duten ikasleei buruz, horregatik egin dezakegun bakarra da 90-91 ikasturteko lehen lauhilabeteako programatutako ikastaroetan izena eman zuten ikasleen kopuruari buruzko datuak ematea. Ondoko taulan ematen ditugu:

5. TAULA Unibertsitarien partaidetza 90-91 ikasturteko lehen lauhilabeteakoan (Bizkaiko kanpua)

IKASTAROA	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	% EMAKUMEAK
Aerobic	12	0	12	100,0
Delta hegala	9	8	1	12,5
Aire bataioa	2	1	1	50,0
Buzeoa	15	12	3	20,0
Saskibaloia monitoreak	10	5	5	50,0
Gorputz adierazpidea eta Mimoa	6	4	2	33,3
Mantenimenduko gimnasia	40	5	35	87,5
Muskulazioko gimnasia	108	74	34	31,5
Hipika	90	27	63	70,0
Judoa	7	7	0	0
Karate	14	12	2	14,3
Mendiko eskalada	12	10	2	16,7
Mendiko orientazioa	18	15	3	16,7
Multi-sport	2	0	2	100,0
Igeriketa	29	15	14	48,3
Orientieering	30	24	6	20,0
Parapente	25	16	9	36,0
Rocodromoa	24	15	9	37,5
Rugbya	0			
Squash	29	12	17	58,6
Taekwondo	5	3	2	40,0
Tenisa	49	18	31	63,3
Arku tiroa	7	5	2	28,5
Bela	65	31	34	52,3
Joga	17	7	10	58,8
GUZTIRA	625	326	299	47,8

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea. Kirol Atala. Bertan prestatutakoa.

Ikastaroetan parte hartzen dutenei begiratuz froga dezakegu horietarik ia erdiak emakumeak direla, beraz kirolarentzako interesa ia berdina da bi sexuetan, nahiz eta kirol batzu gizonetzkoek gehiago praktikatzen duten eta beste batzu neskek, adibidez: aerobic, mantenimenduko gimnasia, hipika, tenisa, squash, bela eta joga.

Datu harez gain baditugu beste batzu unibertsitarien udal kiroldegietara eta pribatuetara sartu ahal izateko eskatu dituzten txartel kopuruari buruzkoak, UPV/EHUarekin hitzartu direnak. Denetara 4.558 karnet izapidatu dira 1990-91 urtean, horietatik 1.592 emakumezkoen multzokoak dira, horrek denen artean %35 egiten du.

UPV/EHUko kirol zerbitzuak ikasturtero unibertsitateko kirol txapelketa antolatzen du, neska eta mutilentzako, 23 modalitate ezberdinetan, baina tamalez datuak ez ditugu, ez partaiden kopuruarenak, sexutan banatuta, ez eta emaitzenak ere. Unibertsitateak berak ere ezin izan dizkigu eman.

Prentsaren bidez ezagutzera eman da Unibertsitateak bi ekipo bikain dituela, gizonetzkoen eta emakumezkoen saskibaloikoak, IV. Saskibaloiko Liga Unibertsitarioan aritu direnak. Hain zuzen ere, emakumezkoen taldea txapeldunorde geratu da aurten eta laugarren erreko bi ekitaldietan.

Aurten, 90-91 ikasturtean, Donostian izan diren Espainiako Txapelketa Unibertsitarioan UPV/EHUK 13 domina irabazi ditu. Neskek bost atera zituzten: brontzezkoak judoan, bakarkakoan (pisu astunetan) eta taldeka. Mahaiko tenisean ere beste bi domina atera zituzten: bakarka eta bikoteka. Bakarkako tenisean ere brontzezko domina irabazi zuten. Era berean, egoitza Gasteizen duen UPV/EHUko boleiboleko emakumezkoen ekipoa unibertsitatearteko txapeldun geratu zen.

Unibertsitateko kirolarekin amaitzeko aipatu behar da kirol federatuan ez bezala, non emakumezkoen partaidetza %18 bakarrik izateaz gain zazpi kirolean emakumeak ez baituzten parte hartzen, unibertsitatean neskak ia mutilak adina dira (%48), eta bi baizik ez dira emakumezkoek praktikatzen ez duten kirolak. Emakumeak gutxiago dira kirol federatuetan, haiek bereziki konpetiziora bideratzen direlako eta konpromezu instituzional estuagoa eskatzen dutelako.

Beraz, ziurta dezakegu oinarritzko eta unibertsitate mailako kirolean emakumeak gizonak adina aritzen direla, ez kopuru orokorrean soilik bai eta eskaintzen diren ia kirol guztietan duten partaidetzan ere. Alabaina, oraindik alde handiak daude sozialki "gizonenak" eta "emakumeenak" kontsideratzen diren kirolen artean.

Oinarritzko kirola egiten duten emakumeak

Azken kapitulu honetan zuzeneko harremanak izango ditugu hautatutako udal kiroldegietan, 2.3 atalean aipatu ditugunetan, alegia, (Artxanda, Deustua, Errekalde eta Txurdinaga Bilbon, Gorostitza Barakaldon, Fadura Getxon eta Sakoneta Leioan) kirola egiten duten emakumeekin.

Kiroldegi horietako erabiltzaile ziren 14 urtez gorako 423 emakumeri egin zitzaien inkesta batean hasten dira harreman horiek. Galdesorta aztertuz jakingo dugu zein diren praktikatzen dituzten kirolak, eta zein nahiko lituzketen; zein motibaziok daramatzan ariketa fisikoa egitera, eta bide batez kirolarekin erlazionatutako alderdi batzuei buruzko zenbait eritzi ere emango dizkigu.

Kiroldegietan funtzionamendu orduetan agertzen ziren emakume guztiengana jo genuen eta kolaborazio indizea arras ona izan zen, %90etik gorakoa.

Lehenbiziko datu interesgarria da emakumeak batez ere goizeko orduetan joaten direla kirola egitera. Galderen %61 erantzun goizeko 8,30etatik eguerdiko 13etara eman ziren, eta gainerako %39 arratsaldeko 16tik 21era bitartean bete zituzten.

Jarraian inkestaren emaitzak paratu ditugu, zeinen datu teknikoak, bai eta datu bilketarekiko iruzkinak ere, 2.1 atalean biltzen baitira.

3.1

DATU

SOZIODEMOGRAFIKOAK

3.1.1

ADINA

Emakumeak honela sailkatu dira, adinaren arabera:

6. TAULA Erakuskariaren banakuntza, adin multzoen arabera


ADINA	K (*)	%
14 urtetik 20ra	52	12,3
21 urtetik 30ra	79	18,7
31 urtetik 40ra	123	29,1
41 urtetik 50ra	78	18,4
51 urtetik 60ra	55	13,0
61 urtetik gora	31	7,3
Ez du erantzun	5	1,2
GUZTIRA	423	100,0

(*) K honekin (kopurua) adierazi nahi dugu modalitate bakoitzean parte hartzen duten pertsonen kopurua.

Aipatzekoa da udal kiroldegiak betetzen dituzten emakumeen adina, batez beste, 38 urtekoa dela.

Jende anitzek uste duenaren kontra kirola egiten duen emakumea ez da 30 urtez beherako gaztea, aitzitik, zenbakiak besterik erakusten digute: oinarrizko kirola egiten duen emakume heldua eta adinekoa dela eta ez duela zerikusirik kirol federatuarekin, hauetan pertsona gazteagoak ibiltzen bait dira.

2. GRAFIKOA Erakuskariaren banakuntza, adin multzoen arabera



Adina kontutan hartuta multzorik kopurutsuena 31 urtetik 40ra bitartekoa da, baina ikus dezakegunez multzo horren alboan gainerako adin multzoak mailaz maila eta simetrikoki eratzten dira.

Azpimarratu behar da ez dela txantxetakoa kirolen bat egiten duten 40 urtetik gorako emakumeen portzentaia, multzo horrek hartzen baitu erabiltzaile guztien kasik %40a.

3.1.2

EGOERA ZIBILA

Talderik ugariena emakume ezkonduak osatzen dute (%62) eta bi edo hiru seme-alaba dituztenek (%42).

7. TAULA Erakuskariaren banakuntza, egoera zibilaren eta seme-alaba kopuruaren arabera

EGOERA ZIBILA	K	%	SEME-ALABAK	K	%
Ezkongaia	134	31,7	Batere ez	145	34,3
Ezkondua	262	61,9	Bat	55	13,0
Banandua	7	1,7	Bi/Hiru	176	41,6
Alarguna	16	3,8	Hiru baino gehiago	40	9,5
Ez du erantzun	4	0,9	Ez du erantzun.	7	1,6
GUZTIRA	423	100,0	GUZTIRA	423	100,0

Hemen argi asko ikus dezakegunez, emakume helduek eta, eskuarki, haurtzarotik atera diren seme-alabek, etxeko lanetik zertxobait libreago direlarik, beren buruaz arduratzeko asti gehiago dute eta horren kariaz, gainerako emakumeek baino aisago, kirola egiteko beta hartzen dute.

3.1.3

IKASKETAK

Emakumeetan %55ek lehen mailako ikasketak bakarrik egin dituzte, kalifikazio horretan eskolako ikasketak, antzinako batxilergoa eta egungo B.B.B. sartzan direlarik. Goi mailako edo ertaineko karrera unibertsitarioekin %28 daude.

Galderak irakurri zitzaizkien emakume gehienak, denak 40 urtetik gorakoak, kexu ziren txikitari estudiantzeko behar adina aukerarik ez bait zuten izan.

8. TAULA Erakuskariaren banakuntza, ikasketa mailaren arabera

IKASKETAK	K	%
Unibertsitarioak	66	15,6
Ikasketa ertainak	51	12,1
Lanbide Heziketa	65	15,4
Lehen mailako ikasketak	230	54,4
Analfabeto	4	0,9
Ez du erantzun	7	1,6
GUZTIRA	423	100,0

3.1.4

LAN EGOERA

Emakumezkoen erdiak etxeakoandreak dira; %20 baizik ez dira etxetik kanpoko lanean ari, lanaldi erdian nahiz osoan.

9. TAULA Erakuskariaren banakuntza, lan egoeraren arabera

LAN EGOERA	K	%
Etxetik kanpo lan egiten dute, lanaldi osoz	53	12,5
Etxetik kanpo lan egiten dute, lanaldi erdian	30	7,1
Langabezian daude	40	9,5
Etxekoandreak lana baizik ez dute egiten	221	52,2
Ikasleak dira	72	17,0
Ez du erantzun	7	1,7
GUZTIRA	423	100,0

Zenbait emakumek jarrera kritikoa dute beren egoeraren aurrean, hots, etxeakoandre izatearen aurka azaltzen dira, eta langabezian daudela kontsideratzen dira, baina sailkapen horretan sartu gabe, zeren gaitasun profesionalik ez dutela erantzun bait dute. Xehetasun honetaz gain, bada beste datu bat kontutan hartu beharrekoa, hau da, emakume batzuek ez dutela “etxeakoandre” hitza ontzat hartzen. Zentzu eskasa duela diote gizartearen aurrean, eta izen berri hau bereganatu dute: etxeako administratzaileak

3.1.5

LANBIDEA

Etetik kanpo lan egiten duten guztiek ez dute beren profesioa adierazi. Kopuruaren garrantziaren arabera ordenatuta jarri ditugu jakin erazi zaizkigunak. (Aurreko atalean azaldu direnez gero baztertu egin ditugu ikasle eta etxekoandreen datuak).

10. TAULA Erakuskariaren banakuntza, lanbidearen arabera

LANBIDEA	K	%
Administraria	26	26,5
Irakaslea	22	22,4
Prof. liberala	12	12,2
Ileapaintzailea/jostuna	9	9,2
Ostalaria	7	7,1
Saltzailea	6	6,1
Neskamea	5	5,1
Dekoratzaila	4	4,1
Telefonista	3	3,1
O.L.T.	2	2,1
Teknikaria	2	2,1
GUZTIRA	98	100,0

"Liberal" kalifikazioa ezarri zaie unibertsitateko ikasketak egin dituztenen lanbideei, esate baterako: medikua, ekonomista, berriztatzailea eta psikologoa; teknikaria aipatzean informatikakoa eta laborategikoa ulertu behar da.

3.2

EMAKUMEEK
PRAKTIKATZEN
DITUZTEN KIROLAK

Gimnasia eta igeriketa dira emakumeek masiboki praktikatzen dituzten kirolak. %65 segido joaten dira igeri egitera, eta %50k berriz beren ariketa fisikoa gimnasiara bideratzen dute, batez ere mantenimendukoa.

Gainerako kirolekin askoz ere emakume gutxiago aritzen da, %10etik behera, baina ezin dira aipatzeke utzi muskulazioa, boleibola, tenisa, mendia eta eskia, %5etik 6,6ra bitarteko portzentaiekin. Emakume talde batek "ibiltzea" erantzun du, egunero egiten duten ariketa bat delako, eta horrela sartu dugu oinarrizko kirolen zerrendan.

Gogoan hartzekoa da 32 aktibitate ezberdin azaltzen direla; horrek aukera zabala adierazten du kirol interesaren arloan.

Emakumeetan %55ek ez dute aski batekin bakarrik eta bitan bederen aritzen dira. %25ek berriz, hiru kirol ezberdinetan aritzen dira. Hor erakusten dute kirolarenganako zaletasuna.

11. TAULA Erakuskariaren banakuntza, praktikatzen diren kirolen arabera (galdera bat baino gehiago pertsona bakoitzeko)

KIROLA	K	%
Ibiltzea	44	10,4
Atletismoa	10	2,3
Saskibaloia	15	3,5
Txirrindularitza	16	3,7
Footing	7	1,6
Pilota	11	2,6
Mantenimenduko gimnasia	213	50,3
Mendia	28	6,6
Muskulazioa	24	5,6
Igeriketa	277	65,5
Eskia	22	5,2
Squash	10	2,3
Tenisa	25	5,9
Boleibol	23	5,4
Joga	12	2,8

Aipatzen diren beste kirol batzu %1etik behera daude (1 eta 3 pertsonen artean): aerobik, eskubaloia, herri-kirolak, esgrima, gimnasia pasiboa, gimnasia erritmikoa, hipika, judoa, karate, borroka, maratoia, patinaia, urpekoak, taekwondo, mahaiko tenisa, arku tiroa eta windsurf, eta horrela 32ak osatu arte.

Agian zenbaki hauek erakusten diguten daturik garrantzitsuena da igeriketa eta gimnasia izaten den parte hartze kopurutsua, horren arrazoia behar bada izan daiteke kiroldegietan bi kirol mota hauetako ikastaroak ugariago direla. Baina ez da hori arrazoi bakarra, kontuan hartu behar da baita ere loturaren bat badagoela erabiltzaileak pertsona helduak izatearen eta bi kirol hauetara mugatzearen artean. Sarritan, bere bizitzan ez dute beste kirolik egiteko abagunerik izan. Izan ere, talde osoan, %25,3k baizik ez zuten kirolik egin eskola garaian. Emakumeetan gazteenak hautapen zabalagoaren alde agertzen dira; gaur egun, bestalde, kirol mota gehiago egiteko aukerak areagotu egin zaizkie emakumeei.

3.2.1

MAIZTASUNA

Ehuneko %90 inguru kiroldegira joaten da asteen bizpahiru egunetan bederen eta %35ek bost urte baino gehiago daramatzate kirola egiten. Horrek adierazten du kirola egitea ez dela emakumeak noizean behin denbora pasa eta ongi datorkionean bakarrik egiten duen zerbait, aribide sistematiko eta serioa baizik; %3k bakarrik aitortzen dute kirola “noizik behin” egiten dutela.

12. TAULA Erakuskariaren banakuntza, kirol ihardunaren maiztasuna eta denbora

ZENBAT EGUN	K	%	ZENBAT URTE	K	%
Egunero	105	24,9	Urtebete baino gutxiago	82	19,4
2-3 aldiz asteen	271	64,1	Urte betetik 5era	166	39,4
Asteen behin	31	7,3	5 urte baino gehiago	149	35,2
Noizean behin	12	2,8	Ez du erantzun	25	6,0
Ez du erantzun	4	0,9			
GUZTIRA	423	100,0	GUZTIRA	423	100,0

Pertsona gehienek, %91, beren kirol errendimendua hobetzeko asmoa dute, %42 inguru buru-belarri saiatzen da horretan, ariketa fisikoa era jarraian eginez.

Kiroldegira segido joate hori ez dute behinere nahitaezkotzat hartzen emakumeetako %56k; baina %11k diote errutina hori bere buruari inposatzen diotela eta beste %33ek batzuetan eginbehar bat bailitza hartzen dute.

Neurri batean beharkizun bat den arren %98k adierazi dute kirola egiteak bere garrantzia duela bizitzan, eta baieztapen hau oso interesgarria da, kirola egiteak, bere esan nahi guztiarekin, atsegin pertsonal handia sortarazten duela adierazten duelako, eta hain zuzen ere beren bizitzan maila hori ematen diote.

3.2.2

BAKARKAKO EDO TALDEKAKO KIROLA

Kiroldegietan antolatutako aktibitateetan erabiltzaileen %56k hartzen dute parte. Gehienetan igeriketa ikastaroak edo mantenimenduko nahiz hirugarren adineko gimnasiak dira erakargarrienak.

Ez da horren harrigarria izaten hirurogei urteko emakumeak igerian ikasteko ikastaro batean sartzea. Balorea ere behar da adin horretan era horretako zereginetan hasteko.

Oso gutxi egiten dute kirola ekipoa, boleiboleko talderen bat ez bada. Kirol taldeak eskolako adinetan eratzen dira federazioen nahiz kirol elkarten bidez.

Era berean, %56ri atseginago zaie kirola taldeka egitea, emakumeen %17 bakarka egitearen aldeko direlarik. Gelditzen diren %27k gustoko dute taldea, baina beti ere obligaziorik gabe.

Taldeak hiru mailatan du garrantzia:

Oso garrantzi handikoa %38,5entzat, garrantzizkoa %39,2rentzat eta batere gabea %15,8rentzat. Gai honetaz ez dute eritzirik eman %6,5ek.

Ohartu gara lotura handia dagoela adinaren eta taldekako kirolaren artean. Horrela, adinez aurrera joan ahala taldekako kirolaren aldeko joera handiagoa izaten da. Gazteenak (30 urtetik beherakoak) dira taldearekin zorrotzenak; ez dute edozein moduko talderik, behar dute beren gustoko pertsonekin eratu, edo bestela bakarkako kirolera nahiago dute.

Taldearen garrantzia etxekoandreen artean sumatzen da bereziki. Zerbaitegatik esaten dute "taldeak garrantzia handia duela" kirola egiten segitzeko.

Etxekoandrearentzat aktibitate horretan aritzea bide bat izan daiteke egunean ordu batzutan behintzat etxetik ateratzeko eta beste pertsonekin harremanak izateko.

3.3

MOTIBAZIOA

Hainbat arrazoi daude emakumea kirola egitera bultzatzen dutenak, kasu gehienetan ez bat bakarrik, baizik bi eta hiru ere aipatzen dira. Ondoko taulan lehentasunaren arabera ordenaturik ageri dira:

13. TAULA **Kirola egiteko arrazoiak (erantzun bat baino gehiago)**

ZERGATIK KIROLA EGIN	K	%
Osasunerako ona delako	265	62,6
Gustoko dudalako	263	62,2
Sasoi onean egiteko	261	61,7
Lasaitzen duelako	179	42,3
Errehabilitaziorako	47	11,1
Argaltzeko	33	7,8
Entrenatzeagatik	29	6,9
Adiskideak egiteko	21	5,-
Beste bati laguntzeko	4	0,9

Interesgarria da jakitea kirola egiteko aurrenetariko arrazoi bat ariketa egiteak ematen duen atsegina dela, eta horrekin batera sasoi onean egon nahia edo gorputza osasuntsu mantendu nahia.

Datu hauek talde osoko erizpideen islada diren arren, ez dute emakume guztiek modu berean erantzuten; adinak muga garbiak ezartzen ditu estatistiketan, orain adieraziko dugun bezala.

Ariketa eginez ongi pasatzea da hemen azaldu diren arrazoiaren artean adinarekin aldatzen ez den bakarra.

30 urtetik beherakoek beren adierazpenetan hauek azpimarratzen dituzte: sasoi onean egotea, argaldu eta entrenatzea. Bitarteko adinekoek, berriz, 31 eta 50 urte artekoentzat kirola egitearen arrazoiak lasaitze pertsonala da. 50 urtetik gorakoek beste zergatiak dituzte: osasuna, errehabilitazioa eta adiskidantza.

Adinaren eta kirola egiteko arrazoiaren arteko loturen analisia denboran zehar gizakien interesen bilakaeraren ikuspegi bat ematen digu: gaztearoan edertasun fisikoa eta gorputzaren garapen harmonikoa baloratzen dira. Heldutasunean erlaxazioa eta eguneroko tentsioak lasaitzea bilatzen da, lanaren eta lan munduko eta gizarteko erantzukizunaren ondorioz sortzen direnak, eta azkenik bizitzaren hirugarren etapan helburua izaten da osasuna mantentzea eta lagunarteko giroa suspertzea.

Ahalegin fisiko handia eskatzen duten kirolak ez dituzte gustoko emakumeek, %14 bakarrik ageri dira era horietako ariketen alde. Eta portzentaia hori funtsean 30 urtetik beherakoek multzoan biltzen da.

Lehiaketa kirolak ere ez dira gure taldeko askorentzat atseginak izaten, nahiz eta %40k esan “lehia kirolaren oinarria dela”; erizpide hori adinarekin lotuta dago estatistikak erakusten

duenez; baina oraingo honetan zaharrenak dira lehiaketaren alde azaltzen direnak. Lehiaketa kirolaren oinarri bezala, gazteenek ia onartu ere onartzen ez duten bitartean, gainerako adinekoak gogoz agertzen dira horren alde.

3.3.1

NOREN ERAGINA
IZAN ZUEN
KIROLEAN HASTEKO

Emakumeen portzentaia handi batek bere kabuz erabaki du zein kirol praktikatu (%70). Beste kasu batzuetan, pertsonaren bat edo batzu izan dira eragileak, batez ere adiskideak edo medikua.

14. TAULA Nork bueltzatzen zuen kirola egitera

NORK	K	%
Inork ere ez, bere kabuz	296	70,-
Adiskideek	57	13,5
Medikuak	47	11,1
Bere bikoteak	27	6,4
Bere seme-alabek	16	3,8
Beste batzuek	12	2,8

Beraz, kirola egitera joateko arrazoa beren erabakia edo arrazoi pertsonalak izan dira. Guztiarekin ere, adinak pisu handia du autonomia hori neurtzeko orduan. Horrela, 50 urtez goitiko emakumeen kasua oso ezberdina da, horiek adiskideen, seme-alaben edo medikuen laguntza handiagoa behar dute txandala edo bainu jantzia jatzeko gazteagoek baino.

15. TAULA Senideen artean kirola egiten dutenak

FAMILIAKOEN ARTEAN ZEINEK EGITEN DUEN KIROLA	K	%
Inork ere ez	93	22,0
Bere bikoteak	116	27,4
Seme-alabek	118	27,9
Anai-arrebek	60	14,2
Gurasoek	24	5,7
Ez du erantzuten	12	2,8
GUZTIRA	423	100,0

Gure taldeko familietan kirol giroak garrantzi handia du, izan ere ia %80k senitartekoren bat bait dauka kirolen bat egiten duena. Baina lehenago ikusi dugunez, senitarteko horiek emakumearengan eragina izan ordez, maiz aski alderantzizkoa gertatzen da, bera, familiako ama, saiatzen dela etxeako kiroldegira eramaten. Baieztapen hau Bilboko K.U.E.ko arduradun batek berretsi digu, zeinen ustez, une hauetan emakumea baita kirolaren aldeko elementu dinamizatzailea familiaren barruan.

3.4

OSASUNA ETA KIROLA

“Osasunarentzat ona izatea” da emakumeek seinalatzen duten arrazoi behinenekoena kirolen bat egitera erabaki behar dutenean, eta erizpide hori, adinez aurrera doazen eran, indarra hartuz doa.

Burutapen horrek indarra hartzen du ariketak egin ahala errendimendua ere hobetuz doala ikusten dutenean. %51k diotenez errendimendua “asko” hobetzen da, %42k “piska bat” eta %6 baizik ez dira batere aldaketarik ez dutela somatu diotenak.

Erabateko gehiengoak, %98k, dio kirola egin ondoren oso ongi sentitzen dela. Emakumezkoen artean oinarritzko kirolean lehen tokian dauden kontzeptuak badirudi partaidetza, jai giroa eta osasuna direla.

3.4.1

OSASUN ARAZOAK

Pertsonetako %83k ez dauka kirola normalki egiteko eragozpenik bat ere.

Beste %17en artean oztopo hauek izaten dira: artrosia, %7, bizkarrezurreko arazoak, %6, alergiak, barizeak eta ezintasuna, %4.

Oro har, trauma-arazoren bat daukaten pertsonak kiroldegira medikuaren aholkuz hurbiltzen dira, errehabilitazio gisa, ariketa fisikoak egoera hobetzen duelako ustetan.

Hileko zikloak oztopatu egiten die menopausian sartu ez diren emakumeetarik %20ri, eta egun horietan ez dira kirola egitera azaltzen.

Bizkaiko kiroldegietara joaten diren emakumeetan %25i baizik ez diete kirola praktikatu aurrerako proba medikurik egin.

Gogoan izanik emakumeetarik %55 kiroldegiak berberak antolatutako taldeetan sartzen direla bai eta gainera emakumeen adina aski aurrera doala, ez da bidezko bihotzaren azterketa medikua, biriken edukierarena, erresistentziarena, e.a., multzo horren erdiari bakarrik egitea. Ez legoke batere gaizki, alde horretatik, kirol arduradunek arreta gehiago jarriko balute. Urtero ikastarotan parte hartzen dutenei azterketa medikoa derrigorrez egin behar litzaieke, eta gauza bera gomendatzen zaie kirola beren kabuz egiten dutenei.

3.4.2

ELIKADURA

Kirola egiten duten pertsonen elikadura hobeki zaintzen dutela ziurtatzen duen frogarik ez dago. %44ren esanetan nolabaiteko kontrolik badute, baina ardura hori interes pertsonalari zor zaio, agian, eta ez kirola egiteari edo kirol erakundeek emandako heziketa dietetikoari.

Dena den, 50 urtetik gorako pertsonen gazteek baino hobeto zaintzen dute dieta.

Ez litzateke txarra izango erakunde ofizialek gai honetaz ikastaro batzu emango balituzte; kirol medikuntza prebentziotik has zedila, kirolariei argibide dietetikoak ematetik abiatuz.

3.5

ITXAROBIDEAK

Gimnasia eta igeriketa izan diren arren emakumeek gehien praktikatutako kirola, ez berek hala nahi izan dutelako, zerbitzuen eskaintzagatik baino, ez dute, hargatik, beste kirolekin aritzeko itxaropenik galdu.

Horrela mintzatzen dira %58, aukerarik balute beste kirolekin aritzeko liratekeela ziurtatzen dutenean. Gainerakoak pozik daude egiten dutenarekin edo ez dute beste batekin hasteko asmorik erakusten.

Beste batzuek erantzun dute ahal balute kirol guztiak praktikatuko lituzketela, hain da handia horien zaletasuna. Beste zenbaitek kirol konkretuak izendatu dituzte, guztira 41 kirol ezberdin.

Emakume askok ez dute kirol bat bakarrik aipatu, beraiei gustatuko litzaiekeena, baizik eta %32k bi hautatu dituzte eta %14k berriz, hiru kirol ezberdin, praktikatutako nahi lituzketenak gaur egun ezinezkoa zaien arren.

Kirol klasikoek sortzen dute interes handiena, hala nola, tenisak, igeriketak, eskiak, hipikak eta gimnasiak, (arrakasta gehien duten 10 lehenengoen datuak jaso ditugu); baina aldi berean emakumezkoen tradizioan ohitura gutxikoak direnak ere agertzen dira, parapente, del-ta-hegala, xakea, piraguismoa, esgrima, automobilismoa edo ure-eskia.

16. TAULA **Zein Kirol praktikatuko liratekeen**

KIROLA	%
1. Igeriketa	29,8
2. Tenisa	29,4
3. Eskia	15,1
4. Hipika	11,8
5. Gimnasia	11,0
6. Saskibaloia	9 ,0
7. Txirrindularitza	5,3
8. G. Erritmikoa	4,5
9. Patinaia	4,1
10. Squash	4,1

Kirol hauenganako interesa zenbait arrazoi direla medio ez da gero egiazko iharduera bihurtzen. Arrazoi horiek ondoko taulan agertzen dira kopuru handienetik txikienera ordenatuta. Oharterazi behar da baina, emakume asko, helduak batez ere, normalean zein kirol egiten duten hartara moldatzen direla, beste kirolen gutiziarik izan gabe.

17. TAULA **Beste kirol batzu ez egiteko**

ZER DELA ETA EZ DUEN PRAKTIKATZEN	K	%
Astirik ez	122	28,8
Garestiegia	56	13,2
Instalaziorik ez	43	10,2
Alperkeriak	31	7,3
Ez dauka norekin praktikatu	28	6,6
Ez du horretarako sasoirik	25	5,9
Gazteagoentzako da	20	4,7
Denboraldi bateko kirolak dira	18	4,3

Beste batzuek aipatu ere aipatu dute askotan suertatzen dela instalaziorik izan arren behar adina monitore ez izatea tenisa, igeriketa, e.a. irakasteko, eta horrek beste kiroletan pentsatzeko gogoak kentzen dizkie. Beste erantzun puntualak hauek izan dira: pertsona batzuek, 50 urtez gorakoak, igeri egitea gustatuko litzaiekeela diote, baina ez dakitelako edo

uraren beldur direlako ez dute praktikatzen. Beste batzuek txirrindularitza dute gogoko, baina ez dute bizikletarik eta beren adinean lotsa ematen die erostea, edo trafikoa dela eta, arriskutsua deritzote errepidean ibiltzeari, eta arazo bera sortzen zaie footing egin nahi dutenei.

Taldeka egin beharreko kirolari buruz arrenkuratzen dira emakumezko futbol nahiz saskibalo talderik ez dagoelako. Inkestan parte hartu zuteneko batzuek, neskak gazteen amek, aipamen batzu egin dituzte zentzu horretan haien asmoa EMAKUNDEren bitartez eskabi-deak goragoko erakundeetara helaraztea delarik, haien alabek, mutilek bezala, era normalean, nahi duten kirola egiteko aukera izan dezaten.

Egoera honek erakusten digu zernolako haustura ageri den udal kiroldegiek sustatzen duten oinarritzko kirolaren eta klubetan antolatutako edo federatutako kirolaren artean

Aurrenekoan oso murrizta da eskaintza, ez hainbeste instalazioetan nola giza baliabideetan eta talde antolakuntzan, edo beste kirolen sustapenean, gimnasia -bere aldaki ugarietan-, igeriketa edo arte martzialak salbu. Bigarrenean hagitz handiagoa da eskaintza eta diziplina anitzetan kirol taldeak eratzen dira, baina horietan lehiaketari eta markak hausteari ematen zaie lehentasuna, eta hori beti ez dator bat kiroldegietako erabiltzaileen motibazioekin.

On litzateke kirol eskaintza zabalago bat egingo balitz eta emakumeek beren nahia betetzeko abagunea izango balute. Ziur aski, gerora herriak izan dezakeen garapen ekonomiko eta soziala kirolaren onerako izan daiteke, guztientzako hornikuntza hobeago eta ugarigoaren bidez.

3.6

KIROLA IKUSKARI GISA

Kirol ikuskarietara joateak ez du arrakasta gehiegirik emakumeen artean. Kirolzaleak ikusi baino gehiago praktikatu egiten du. %63 inoiz izan da kirol lehiaketaren batetan, baina hirutatik bat, beste norbaiti laguntzeagatik.

18. TAULA Kirol ikuskarietara zein maiztasunez joaten diren

KIROL IKUSKARIETARA JOATEA	K	%
Inoiz ere ez	152	35,9
Noizik behin	228	53,9
Askotan	38	9,0
Ez du erantzun	5	1,2
GUZTIRA	423	100,0

Adinak zerikusi handia du partidu bat edo kirol erakustaldi bat ikusteko interesarekin. Mota horretako ikuskarietara 50 urtetik gorako emakumeak dira gutxien joaten direnak. Baina, telebistan kirol programak ikusteari dagokionean, adinak ez du inolako alderik adierazten. Kirolari hurbiltzeko sistema honek arrakasta gehiago du. %20k esaten du edozein motatako kirola arretaz ikusten duela , %27ri, ordea, ez zaio batere interesatzen telebista jartzea kirola ikusteko.

Inkestatuen erdiak bere aukera egiten du telebistaren aurrean esertzerakoan eta era honetako ikuskari bat ikusterakoan. Onarpen maila handiagoa duten kirolak havek dira, puntuazioaren arabera sailkatuta: (datu hauek 218 pertsonari egin galderetatik atera ziren, programa bat bakarrik edo batzu hautatu ondoren)

19. TAULA Telebistan ikusten dituzten kirolak, lehentasun hurrenkeran

KIROLA	%
1. Gimnasia erritmikoa	25
2. Saskibaloia	20
3. Tenisa	18
4. Kirol gimnasia	17
5. Igeriketa	15
6. Futbola	12
7. Patinaia	11
8. Eskia	7
9. Atletismoa	6
10. Hipika	3

Hautatu zituzten beste kirolak, guztira 26, oso gutxi ziren kopuru aldetik. Gizartean kirolen erregetzat hartzen duten futbolak, emakumeen artean ez du kategoria bera mantentzen, telebistan zein kirol ikusi behar den aukera egiteko unean.

Emakume batzuen eritziz kirol batzu ez dira egokiak berek praktikatzeko, horrela adierazi dute inkestan, eta eritzi horiek 20.taulan jaso dira.

Mendez mende eta kultura bidez transmititu den ideia, kirola gizonen eginkizuna dela, alegia, zeharo errotuta dago gure gizartean eta baita gure emakumeen artean ere, nahiz eta aktibitate guztiek tratu bera ez duten, ikusiko dugun bezala; kirol batzuek beste batzuek baino omen eskasagoa dute.

20. TAULA Emakumeentzako kirol desagokiak

KIROLA	K	%
Rugbya	199	47,0
Herri-kirolak	189	44,7
Muskulazioa	136	32,2
Disko jaurtiketa	117	27,7
Futbola	85	20,1
Pilota	74	17,5
Txirrindularitza	56	13,2
Judo/karate	54	12,8
Bilarea	42	9,9
Eskubaloia	23	5,4
Tenisa	4	0,9

Emakumeentzat desagokientzat jotzen diren kirolak badirudi rugbya eta herri-kirolak direla, inkestako erdiek behinik behin halaxe diote. Tenisa da, ia adostasun osoz, kirolik femenino-ena. Interesgarria litzateke jakitea ea telebista den, emakumezkoen tenisa sarri ematen baitu, erizpide honetan eragin gehien izan duen elementua.

Inkestatutako emakumeen %15ek ez dute gai honetaz deus esan nahi, edo ez dute asmatu, eta azpimarratu behar da %28k esan dutela emakumeek kirol guztiak, salbuespenik gabe, praktikatzen ahal dituztela, edozein eratako bereizkeriari uko eginez.

Galdesortan agertzen zen esaldi batek honela zioen: “Neskek ez lukete futbolean jokatu behar”, eta hartaz nork bere jarrera erakutsi behar zuen. Bada, %22rentzat esaldia zuzena zen eta %75 berriz horren aurka edo erabat aurka azaldu ziren.

Gure gizartean oraindik ere kirola egiteko sexu bereizketaren kulturak bere horretan dirau. Ez du inolako asaldurarik suposatu esaldi sexista hori idatzita ikusteak eta horren kontrako

jarrera agertzeak. Gure emakumeen erantzuna guztiz bat dator lehengo erantzunarekin, hau da, futbola neskontzako desegokia den ala ez galderari eman ziotenarekin, %20,1. Zentzu bereberean beste esaldi hau jarri zitzaien: "Gimnasia erritmikoa ez da gizonentzako egokia". Baieztapen horren alde ia %24 azaldu zen, jarrera horrekin emakume batzuek in-dartu egiten dute kirolaren munduko diskriminazioa.

Iruzkin gehigarri gisa azpimarratu behar da oso normala dela kiroldegietan gimnasia erritmi-koa egiten ari direnen artean mutiko gutxi ikustea. Tradizioz emakumezkoen kirola izaki, amek ez dute nahi izaten beren semeek praktika dezaten, haien gizentasuna ezbaian gera ez dadin. Erizpide hauekin gure gizartea nahikoa urrun dago gizarte garatuenek duten mailatik. Bai-na ez da ahortzi behar eritzia ematen duten emakumeen adina. Aldagai honek erabateko garrantzia du era honetako erizpideak juzkatzerakoan.

Jarrerarik tradizionalenak mantentzen dutenak eta ondorioz kirol asko emakumeentzako egokiak ez direla defendatzen dutenak 50 urtetik gorakoak dira. Erizpen horiek ez dira ho-rrren irmoak izaten adinean behera egiten dugun ber. Muga 30 urtetan dago, hortik behe-rakoek erizpen modernoagoak dituzte, beraz, planteamendu sexistatik gero eta urrunago. Dirudienez balore sozialak aldatzeko bidean gara, belaunaldi berrien eraginpean.

Emakumeek praktikatu behar ez duten kirolarik badela frogatzeko arrazoiak hauek dira:

21. TAULA Zergatik diren desegokiak kirol batzu emakumeentzat

ZERGATIAK	K	%
Indar fisiko handia behar dute	123	29,1
Bortitzak dira	115	27,2
Ez dira estetikoak	68	16,1
Tradizioz	34	8,-
Emakumeak ez du gaitasunik	13	3,1
Beste arrazoi batzu	9	2,1

Emakumeen erdia baino gehiagorentzat ariketa fisikoaren bortizkeria eta egin behar den in-dar fisikoa dira emakumeen artean mesfidantza gehienek sortzaileak era guztietako kirola praktikatzeko orduan.

Halarik ere, %26,7k uste du ez dagoela inolako arrazoirik horrela pentsatzeko. Beste modu batera esateko, funtsezko arrazoirik ez dagoela kirol batzu gizonezkoenak bezala deklaratzeko. Baieztapen honetan inkestak adinak ere badu zerikusirik: 30 urtetik beherakoek menta-litatea erizpen honetatik hurbilago dago. Inkestatutakoek %7k ez dituzte arrazoiak argitzen.

Kirola historikoki gizonezkoen esparrua izan bada ere, gaur eguneko emakumeek ez dute uste gizonezkoa emakumea baino gaituago denik kirola egiteko; erizpen horren alde %80 azaldu da.

Hala eta guztiz ere, %4k irmo baiezen du gizonezkoak gaitasun gehiago duela. Seguru aski gizonezkoen indar fisikoaren parametroetan eta lehiaketetan lortzen dituzten mundu mailako marka eta plusmarka hobeagoetan oinarritzen dira erizpide horretako defendatzaileak. Dena den, eta kontutan hartuz emakumeen eta gizonezkoen artean dagoen berdinduezinezko diferentzia horren jatorri fisiologikoa oso informazio zientifiko gutxi dagoela, oharterazi behar dugu oinarritzko kirolariek, orokorki, emakumeek kirola egiteko gaitasunaren berdintasunean sinesten dutela. Interesgarria litzateke jakitea ea eritzi hori populazio orokorreko emakumezkoen multzoan ere errepikatzen den.

Portzentaia handi batek pentsatzen badu ere kirol batzu emakumeentzako oso egokiak ez direla, guztiarekin ere, era guztietako kirola -herriak gizonezkoentzat soilik hartzen dituenak barne— praktikatzen duten emakumeak oso femeninoak ez direla %7,8k bakarrik pentsatzen du. Komunikabideak, bereziki telebista, kirol mundua erakusteko eta hartaz informazioa emateko aparteko agenteak dira; kirol ekintza ezberdinetako emakumezkoen partaidetzaren gaineko programak bultzatuko balira erizpideak zabalduko lirateke eta ohituren modernizatze prozesua bizkortu egingo litzateke herrian.

3.8

KIROLAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT GAIRI BURUZKO ERITZIAK

3.8.1

KIROL ARRISKUTSUAK

Kirol batzu praktikatzeak berekin arrisku handia dakar, baita bizia galtzeko adinakoa ere. Emakumeen portzentaia txiki bat, % 9,5, ados dago arrisku hori ontzat jotzearekin, baina ez dute argitzen bizia arriskutan jartze hori berek beren buruari aplikatuko lioketen edo onarpen hori kirol konkretu bat egiten duten pertsonentzako den.

Oso bitxia da pertsona batzuen kasua, izan ere badituzte nahikari edo jarrera batzu kanon arruntetik desbideratzen direnak. Horri buruz gogora dezakegu inkestatutakoen artean adi-

neko emakume batzu zeudela, 50 eta 60 urte bitartekoak, delta-hegala eta alpinismoa-eskalada egin nahi luketenak, eta haiek ziren, hain zuzen, kirol arriskutsuaren defendatzaileak. Gerta daiteke kirolarentzako berezko zaletasuna duten emakume talde bat izatea, gaztetan horretan aritzeko aukerarik izan ez duena.

3.8.2

KIROLA, AGRESIBITATEA DESKARGATZEKO BALIABIDEA

la pertsona guztiek ,%91, positiboki onartzen dute, adinaren aldetik diferentziarik gabe, eguneroko bizitzan sortzen diren joera erasokorrak edo agresibitatea ariketa fisikoaren bidez deskargatzea. Kirola egitea beraz, terapia pertsonal bihurtzen da zenbait kasutan.

Buruz buruko elkarriketan parte hartutako emakume batzuek askatze hori aipatzen zuten, nola nor bere arazoen kariaz humore txarrez iristen den kiroldegira eta nola gero handik lasaitua eta sasoirik onenean ateratzen den.

Aho batez egindako baieztapen hau psikologoek eritziarekin bat dator, esaten dutenean kirolak jarrera erasokorrak bideratzeko eta katarsi gisa balio dezakeela. Antza denez, ariketa fisikoa modu kontrolatu batean eginez gero, gorputza arindu ez ezik egoera animikoa ere lasaitzen du, tentsio erasokorrak libratzen direnean bezalatsu, eta hala organismoak bere oreka berreskuratzen du.

3.8.3

GARAIPENA LORTZEKO LEHIA

Lehen ikusi dugunez emakumeek ez dute lehiaketarako interes gehiegirik. Parte hartze soilak balio gehiago du garaipenak berak baino. %6,5ek bakarrik jartzen du irabaztea parte hartzearen aurretik.

Pentsa daiteke erizpide hori ez dela gertatzen eliteko emakumezko kirolarien artean edo federatuen artean, horiek konpetizio munduan buru-belarri dabilta eta hor emaitzak dira nagusi. Baliteke kirola egiten duten gizonek zifra hauek ez bezalakoak ematea, behar bada haiek dituzten ezaugarri psikologikoengatik.

Interesgarria litzateke gizonezkoen multzoan kirola egiteko arrazoiei, jarrerrei eta eritziei buruzko azterlan bat egitea eta gero emaitzak azterketa honetan azaltzen direnekin konparatzea.

Esan dezakegu oinarritzko kirola funtsean jolasa dela, konpetizioko kirola ez bezala, azken honen baloreak beste bidetatik bait doaz.

3.8.4

XAKEA

Xakea, kirol mota bitxia da, ez baitu ariketa fisikoaren beharrik adimenekoa baizik, beraz aipamen berezia merezi du.

Emakumezkoen multzoak xakeari egiten dion harrera modu askotakoa da. %33ri aspergarria iruditzen zaio eta %59 ez dago ados kalifikazio horrekin; hauen eritzia da, beraiek ez baldin badakite ere, horretan jokatzeko dakitenentzat liluragarria izan behar duela.

Nahikoa adierazgarria da ikustea gurea bezalako herri batean, non xakearen tradizioa oso urria izateaz gain funtsean gizonezkoek bideratuta bait dago, emakumeen erdiak baino gehiagok kirol intelektual horren alde azaltzen direla.

Izatez ere, kirol federatua den honetan emakumeak, emeki-emeki, parte hartzen hasiak dira, oraingoz 27 lizentziekin, guztien %3,5, horietako lau lehenengo kategorian. Kirol horren alde herri eta eskola mailan hurbiltze politika bat eratuz gero, zenbaki xume hauek ederki asko gehituko lirateke, batez ere telebistan xakeko emakumezkoen nazioarteko txapelketen informazio gehiago emanez, gizonezkoen txapelketen aldizkakotasun berarekin jokatu arren komunikabideek aipatu ere ez baitute egiten.

3.8.5

AZKEN IRUZKINAK ETA ONDORIOAK

Azterlan honen kapitulu ezberdinetan zehar ibilbide txiki bat eginez, aurrena kirolaren osagai antropologiko eta soziologikoak aipatuko ditugu.

Jokuek eta kirolek gizateriaren historian bere lekua dute, historiaurretik gure garaia arte, eta gizonari berez datxezkionak izateaz gain, antropologoek diotenez herri baten kultur tradizioaren lekuko ere badira.

Gure egunotan, kirolak duen garrantzia kontutan hartu eta aztertzeke modukoa da. Jendea eta dirua milioika mugitzen ditu eta oso gutxi dira nola edo hala kirolean parte hartzen ez duten pertsonak.

Historian zehar kirolak itzelezko garrantzia izan badu ere, emakumearen partaidetza deuseza edo hutsala izan da, josteta eta etxetik kanpoko iharduera debekatua bait zuen. Kultura gehienetan emakumea kirol munduan ikusle, animatzaile edo atleten laguntzaile baizik ez da izan.

Joko Olimpiko modernoan sorrera une erabakiorra izan zen emakumea kirol arloan sar zedin, bada, Nazioarteko Batzorde Olimpikoak emakumezkoen parte hartzeari uko egin zionean, zenbait naziotako atleten mugimendu bat antolatu zen, probetan sartzeko eskubidearen alde borrokatu zuena.

Onartu bazituzten ere, eta aldian aldian emakumeen partaidetza olinpiadetan gehituz joan bada ere, oraindik ere gaur egun, emakumeek ez dira denetan parekatzen gizonezkoekin; artean ere kirol asko dira haien presentziarik gabe.

Atleta aitzindari haiek zuten kuraia aipatzekoa da, bada, kirola egiteko eskubidea defenditzearen, irainduak izan bait ziren eta anitzetan ezbaian jarri zuten haien ematasuna. Nori berea zor zaio eta emakume haiei esker gizartearen mentalitatea kirol munduan eskubideen berdintasunaren alde jarri zen.

Emakumezkoen eliteko atletek lortu dituzten marka atletikoak ez dira gizonezkoen baliokide fisiologiaren ezaugarriengatik. Baina zientifikoki frogatu denez emakumeek ez dute ezein eratako eragozpenik kirola egiteko, urte askotan saldu nahi izan diguten bezala.

Kirol informazioan dagoen desorekaren ondorioz, gizonezkoen aldera soilik lerratzen baita, eta ariketa fisikoaren tradizio sexistaren eraginez, herriko jendearen artean errezeloak sortu dira kirol batzueganako, eta hortik dator emakumeek kirol horiek praktikatu behar ez dituztelako ideia. Horrela, gizartearentzat kirol batzu emakumeentzat egokiak dira eta beste batzu ez.

Pentsa daiteke emakumeek kirolean parte hartzeari buruz gizarte batek duen erizpena beraren modernitate maila neurtzeko erakuskari dela.

Azterketa honen bigarren kapituluari ohartu ginen gure ingurunean kirolak bi alderdi ezberdin dituela, ikuspuntuaren arabera. Bizkaiko kirol federatua aztertzen badugu ikus dezakegu emakumeen partaidetza oso apala dela, lizentzia guztien artean %18,6 baizik ez dira. Zazpi federazio daude emakumerik gabekoak eta beste hainbestetan partaidetza hutsaren hurrengoa da. Hala eta guztiz ere, txikien kategorietan, infantil eta jubeniletan, proportzioz

neskak mutilak baino gehiago dira. Emakumezkoen lizentzia gehien duten kirolak saskibaloia, mendia eta neguko kirolak dira, gizonezkoen kiroletan futbola, saskibaloia eta ehiza diren bitartean.

Kirola egiten duten Unibertsitateko neskek, kopurutan, ikaskide dituzten mutilek adina praktikatzen dute. Ikastaroetan izena ematen dutenen erdiak emakumeak dira. Hala ere, ihar-duera batzu emakumeek praktikatzen dituzte, hala nola aerobik eta mantenimenduko gimnasia, horietan gizonen presentzia oso txikia edo hutsa delarik.

Bizkaiko kiroldegi zenbaiteko datuek erakusten diguten bezala, hamabost aktibitate ezberdin baino gehiago eskaintzen dituzte, zeinetan emakumezkoek, adin guztietakoek, matrikula orokorreko %62a osatzen bait dute. Lau kirol azaltzen dira gizonezkoen partaidetza xumea dutenak edota guztiz haien partaidetzarik gabekoak, eta aldiz, aktibitate guztietan, salbuespenik gabe, emakumeak daude. Gimnasia erritmikoa da gizonezkoen ukapenaren eredu. Datu hauen bitartez soma daiteke gure herriko kirol sexismoa.

Oinarritzko kirolak egiten dituzten emakumeek betetzen dituzte Bizkaiko kiroldegia, batez ere goizez. Batez besteko adina 38 urte izan ohi da eta erdia baino gehiago dira etxe-koandreak. Kirola sistematikoki egiten dute eta ez noizbehinka. Ariketa fisikoa egiteko arrazoiak hauek dira batez ere: osasunarentzat ona delako, sasoiari eta fleitean egoteko eta ongi pasatzeko. Erizpide hauek eta beste batzuek ere badute zerikusirik adinarekin; horrela, 30 urtetik beherakoak sasoiari egoteko saiatzen diren bitartean, helduagoak erlajatzeko egiten dute kirola, eta 50 urtez gorakoek lehentasuna osasuna mantentzeko eta errehabilitazioari ematen diote. Aho batez diote oso ongi sentitzen direla kirola egin ondoren.

Mantenimenduko gimnasia eta igeriketa masiboki praktikatzen dituzte, horiek baitira kiroldegietan gehien eskaintzen dituztenak, emakumeentzako goizeko orduak gordetzen direlarik. Arratsaldeko kirol ekintzak gazteei zuzenduta egon ohi dira.

Praktikatzen dituzten kirolez gainera beste motatakoetan aritzeko itzaropenak ilusioz betetzen ditu emakumeak, nahiz eta benetan egiteko aukerak hainbeste ez diren. 41 kirol ezberdin egin gogo lituzkete, eta bereziki gazteenek dituzte interes mota ezberdinenak.

Kirola taldeka egitea du gogoko etxe-koandreak. Beste pertsonekin harremanak izateko modua da eta supazterreko asperraldiei ihes egiteko bidea. Baina, kiroldegian bertan antolatzen diren taldeak dira erakargarrienak, berez ez bait dute, kasu gutxi batzuetan salbu, ekipoa eratzeke joera ez eta kantzak eta pilotalekuak alokatzeko ere.

Inkestatuen artean ia erdiak uste du kirol batzu ez direla emakumeek praktikatzeke egokiak, batez ere bortitzak direlako edo indar handia behar delako. Gazteenak ez daude ados eriz-

pen horrekin, baina gehiengoak ez du uste kirolean aritzeko gizonak emakumeak baino gaitasun gehiago duenik. Alabaina, era guztietako kirola praktikatzen duten emakumeak ez dira ematasun gutxikotzat jotzen, kirol batzu tradizioz gizonak bakarrik egin badituzte ere. Modernitatea oraindik oso urrun dago gure herrian goiko gailurrera iristeko. Baieztapen hau hiru argudio osagarritan oinarritzen da:

Lehenbizikoa, kirol federatuetan emakumezkoen partaidetza zenbakitan aski desorekatua dago, eta horietako zenbaitetan, torneo nazionaletara eta nazioartekoetara bideratzen direnetan, emakumeen presentzia hutsa da.

Bigarrena, gure gizartean indarrean daude oraindik tradiziozko balore sexistak, kirolak zeinrentzat diren egokiagoak, gizonetzkoentzat eta emakumezkoentzat erabakitzen dutenak, eta horrek, oztopoa izateaz gainera, kirol ekintza batzu praktikatzeari uko egitera bultzatzen du, sexu batekin edo bestearekin bat ez datorrelakoan.

Hirugarrena, ohartarazi komunikabideek ez dutela emakumea kirolean gero eta gehiago sartzen ari dela jakin erazten; lehentasuna ematen diete gizonetzkoen lehiaketetako emaitzei eta hori segitzen dute suspertzen.

Guztiarekin ere, eta oztopoak oztopo, jarrerak eta pentsamoldea aldatzen ari dira emakumeen baitan: helduak oinarritzko kirolean sartuz, eta neskatoak eta gazteak kopuruaren eta aktibitate motaren aldetik gizonetzkoen mailara iritsiz, eta batez ere, eskubide berdintasunaren alde eta edozein eratako sexu bereizkeriaren aurka azalduz. Maila handiagoko modernitatearen hazia erne da.

Gure gizartea eraldatzen diharduten baloreak berak ere zein azkar aldatzen diren ikusirik, interesgarria litzateke hamarkada baten barnean parekatze horren norabidea aztertzea eta berebat ernaldi horrek gizartean oihartzunik izan duen eta espero zitekeen emaitza eman duen jakitea

Bibliografia

- ÁLVAREZ, Lili: "Amateurismoa, mito bat". Prensa Española Arg. Madril. 1969.
- BARRALLO VILLAR, G.: "Sexua eta kirola". Kirol medikuntzari buruzko monografiak. Desclee de Brouwer. Bilbo. 1989.
- BLANCHARD, K. eta CHESKA, A.: "Kirolaren antropologia". Bellaterra. Bartzelona. 1986.
- BOUET, Michel: "Kirolaren esannahia". Editions Universitaires. París. 1968.
- CAGIGAL, José María: "Oh Kirola! (Erraldoi baten anatomia)". Miñón. Valladolid. 1981
- : "Kirola egungo gizartean". Espainiako Magisteritza Arg. Madril.
- : "Kirola: ikuskizuna eta ekintza". Salvat. Bartzelona. 1981.
- : "Kultura intelektuala eta kultura fisikoa". Kapeluzs. Buenos Aires. 1979.
- COUBERTIN, Pierre de: "Olinpiadetako memoriak". Espainiako Batzorde Olinpikoaren argitarapenak. 1965.
- : "Olinpiaden idearioa". INEF-Doncel Arg.. Madril. 1973.
- DIEM, Carl: "Kirolen historia". Esp. argit. Luis de Caralt. Bartzelona. 1966.
- BIZKAIKO FORU DIPUTAZIOA. Kultura Saila: "Bizkaiko kirol gidaliburua. 1989".
- EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO. Egunkarietako errekorreak 1990eko azken hiruhilabetekoan. Bilbo.
- EMAKUNDE. 3. zk. — Emakumearen Euskal Erakundea Argit. 1990. Gasteiz.
- JEU, Bernard: "Kirolaren azterketa". Bellaterra. Bartzelona. 1988.
- LATHER, John D.: "Kirolaren eta kirolariaren psikologia". Paidos. Bartzelona. 1987.
- LECUMBERRI, J.M.: "Emakumearen jarrera kirol arriskuaren aurrean". Kirol arloko Psikologiaren Nazioarteko Kongresua. Madril. 1973.
- LÜSCHEN, G. eta WEIS, K.: "Kirolaren soziologia". Miñón. Valladolid. 1979.
- SALDEDO, Mercedes: "Emakumea euskal kulturaren garapenean". Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila. 1986.
- THOMAS, R.; HAUMONT, A.; LEVET, J.L.: "Kirolaren soziologia". Bellaterra. Bartzelona. 1988.
- UNIBERRIAK. Unibertsitateko Aldizkaria. 1991.eko maiatza. 15. zk.

A.

Eranstina

A. 1

INKESTA

Inkesta zenbakia

Kiroldegia

Data

	1 – 7etatik 9.50etara
	2 – 10etatik 12.50etara
Ordua	3 – 13etatik 15.50etara
	4 – 16etatik 18.50etara
	5 – 19etatik 22.00etara

Ondoren datozen galdera bakoitzean zenbait erantzun aukera daiteke, hauta ezazu zeure egoerari egokitzen dena edo zuzen deritzozuna eta lerro borobil bat egin alboan dagoen zenbakiaren inguruan. Balizko erantzun horietatik bat ere ez bada zure gustoko, idatz dezakezu zeure erantzuna. Zerbait ulertzen ez baduzu galdetu lasai. Mila esker zure laguntzagatik.

01. G. ADINA:

- 1 – 20 urte arte
- 2 – 21etik 30era
- 3 – 31tik 40ra
- 4 – 41etik 50era
- 5 – 51tik 60ra
- 6 – 60tik gora

02. G. EGOERA ZIBILA:

- 1 – Ezkongaia
- 2 – Ezkondua / Bikotearekin bizi da
- 3 – Banandua / Dibortziatua
- 4 – Alarguna

03. G. SEME-ALABAK:

- 0 – Batere ez
- 1 – Bat
- 2 – Bi/Hiru
- 3 – Hiru baino gehiago

04. G. LAN EGOERA:

- 1 – Etxetik kanpo lan egiten dut, lanaldi osoz
- 2 – Etxetik kanpo lan egiten dut, lanaldi erdian
- 3 – Etxeko lanak egiten ditut bakarrik
- 4 – Langabezian nago
- 5 – Ikaslea naiz

05. G. INKASKETAK:

- 1 – Unibertsitarioak
- 2 – Maila Ertainekoak
- 3 – Lanbide heziketa
- 4 – Lehen mailakoak

06. G. LANBIDEA:

07. G. ZEIN KIROL EGITERA ZATOZ GAUR?

- | | |
|----------------|----------------------|
| 1 – Gimnasia | 6 – Aretu futbola |
| 2 – Igeriketa | 7 – Tenisa |
| 3 – Atletismoa | 8 – Saskibaloia |
| 4 – Squash | 9 – Beste bat: |
| 5 – Pilota | |

08. G. ZENBATERO PRAKTIKATZEN DUZU?

- 1 – Egunero
- 2 – 2 edo 3 aldiz astean
- 3 – Astean behin
- 4 – Noizik behin

09. G. ZENBAT DENBORA DARAMAZU KIROLA EGITEN?

- 1 – Urtebete baino gutxiago
- 2 – Urte batetik 5 urtera
- 3 – 5 urte baino gehiago

10. G. ZEIN KIROL PRAKTIKATZEN DUZU GAINERA?

- 0– Besterik ez
- Beste batzu: Zeintzu?:
- | | |
|-----------|-----------|
| 1 – | 3 – |
| 2 – | 4 – |

11. G. KIROLA TALDE ANTOLATU BATEAN EGITEN DUZU?

- 0 – Ez
- 1 – Bai

12. G. KIROLA NOLA ZAIZU ATSEGINAGO, TALDEKA ALA BAKARKA?

- 1 – Bakarka
- 2 – Taldeka
- 3 – Kasuen arabera

13. G. TALDEAK BA AL DU GARRANTZIRIK KIROLA EGITEN JARRAITZEKO?

- 1 – Garrantzi handia
- 2 – Garrantzi piska bat
- 3 – Batere ez

14. G. ESKOLARA JOATEN ZINENEAN KIROL EKIPOREN BATEAN JOKATZEN ZENUEN?

- 0 – Ez
- 1 – Bai

15. G. ZERGATIK ARITZEN ZARA KIROLA EGITEN?: HAUTA ITZAZU 3 ERANTZUN.

- 1 – Atsegin zaidalako
- 2 – Argaltzeko
- 3 – Sasi onean egoteko
- 4 – Osasunarentzat ona delako
- 5 – Entrenatzeko
- 6 – Adiskideak egiteko
- 7 – Lasaitzen navelako
- 8 – Errehabilitatzeko
- 9 – Baten bati laguntzeko
- 10 – Beste arrazoi bat:

16. G. NORK BULTZATU ZAITU KIROLA EGITERA?

- 1 – Inork ere ez, neure kabuz
- 2 – Nere adiskideek
- 3 – Nere bikoteak
- 4 – Nere seme-alabek
- 5 – Medikuak
- 6 – Beste batzuek

17. G. ZURE FAMILIAKO BATEK OHITURARIK BADU KIROLA EGITEKO?

0 – Ez

1 – Bai. Nork?

18. G. ZUK ZEURE BURUA BEHARTZEN DUZU KIROLA EGITERA?

1 – Sekula ere ez; gustoko dudalako egiten dut

2 – Batzuetan bai

3 – Beti

19. G. KIROL BATZU EGITEA ERAGOZTEN DIZUN OSA-SUN ARAZORIK BA AL DUZU?

0 – Ez

1 – Bai Zein?:

20. G. ZURE AHALMEN FISIKOA HOBETU AL DA KIROLA EGITEN HASI ZINENETIK?

1 – Asko

2 – Piska bat

3 – Ezertxo ere ez

21. G. KIROLA EGITEN HASI ZINENEZ GERO ELIKADURA GEHIAGO ZAITZEN DUZU?

0 – Ez

1 – Bai

22. G. EGITEN DUZUN KIROL HORI EGIN AURRETIK AZTERKETA MEDIKURIK EGIN ZENUEN?

0 – Ez

1 – Bai

23. G. HILEKOAREKIN ZAUDENEAN KIROLA NORMALKI EGITEA GALERAZTEN DIZU?

0 – Ez

1 – Bai

24. G. ZEIN KIROL EGIN NAHI ZENUKE?

0 – Besterik ez

1 – 3 – 5 –

2 – 4 – 6 –

25. G. ZERGATIK EZ DITUZU PRAKTIKATZEN?:

1 – Udalerrian ez dago instalaziorik

2 – Oso garestia da

3 – Ez dut horretarako sasoirik

4 – Ez dut astirik

5 – Aldi bateko kirolak dira (negukoak edo udakoak)

6 – Gazteagoentzako da

7 – Ez daukat norekin egin

8 – Alferkeriaz

9 – Beste arrazoiak:

26. G. IKUSLE BEZALA JOATEN ZARA KIROL IKUSKARIETARA?

0 – Behinere ez

1 – Inoiz bai

2 – Askotan

27. G. IKUSKARI HORIETARA JOATEN ZARENEAN, ZERGATIK?

1 – Interesatzen zaizkidalako

2 – Baten bati laguntzeko

28. G. KIROLA TELEBISTAN IKUSTEN BADUZU, ZEIN ZAIZU ATSEGINENA?

0 – Telebistan ez dut kirolik ikusten

1 – Edozein kirol ikusten dut

2 – Gustokoen hauek ditut:

29. G. ONDOREN AIPATZEN DIREN KIROLAK, EGOKIAK AL DIRA EMAKUMEENTZAT? ZURE ERITZIAREKIN BAT DATORRENAREN TOKIAN X BAT JAR EZAZU.

	Egokia	Desegokia
Txirrindularitza	☐	☐
Judoa/Karatea	☐	☐
Tenisa	☐	☐
Muskulazioa	☐	☐
Rugbya	☐	☐
Herri-kirolak	☐	☐
Futbola	☐	☐
Pilota	☐	☐
Bilarea	☐	☐
Disko jaurtiketa	☐	☐
Eskubaloia	☐	☐

30. G. ZERGATIK USTE DUZU KIROL BATZU EMAKUMEENTZAKO EGOKIAK EZ DIRELA?

- 1 – Ez dago arrazoirik batere
- 2 – Bortitzak dira
- 3 – Indar handia eskatzen dute
- 4 – Ez dira estetikoak
- 5 – Emakumeak ez dauka horietarako gaitasunik
- 6 – Tradizioz. Beti gizonak praktikatu dituzte
- 7 – Beste arrazoirik:

31. G. ERA GUZTIETAKO KIROLAK, ARE ETA GIZONEZ-KOENAK JOTZEN DIRENAK, EGITEN DITUZTEN EMAKUMEAK ZURE ERITZIZ EZ DIRA ASKI FEMENINOAK?

- 0 – Ez
- 1 – Bai

32. G. EMAN ZURE ERITZIA ESALDI HAUETAZ, DENEI ERANTZUNEZ. (ZURE PENTSAMOLDEAREKIN HOBETO DATORRENAREN TOKIAN X BAT JAR EZAZU)

	Erabat ados	Ados	Ez nago ados	Ez nago batere ados
Kirola egiteak garrantzia handia du ene bizitzan	☐	☐	☐	☐
Neskek ez lukete futbolean egin behar	☐	☐	☐	☐
Konpetizioa kirolaren funtsa da	☐	☐	☐	☐
Esfortzu fisiko handiko kirola dut nahiago	☐	☐	☐	☐
Parte hartzea hobe da irabaztea baino	☐	☐	☐	☐
Gimnasia erritmikoa ez da gizonen kirola	☐	☐	☐	☐
Kirolak arazoez ahazteko balio du	☐	☐	☐	☐
Atsegin dut nere kirol emaitzak hobetzea	☐	☐	☐	☐
Gizonak gaitasun gehiago du kirolerako	☐	☐	☐	☐
Xakea kirol aspergarria da	☐	☐	☐	☐
Kirolagatik bizitza arriskutan jartzeak merezi du	☐	☐	☐	☐
Oso ongi sentitzen naiz kirola egin ondoren	☐	☐	☐	☐
Kirolak agresibitatea deskargatzeko balio du	☐	☐	☐	☐

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK ETA ONGI PASA KI-ROLA EGINEZ.